



Lehen migratzaileak Berrizko aterpetxean

Olakueta aterpetxea, Berrizko migratzaileen zentroa, zabalik dago dagoeneko. 25 etorkinentzako tokia dago, eta hamabost egunez egon ahal izango dira bertan. Adin txikikoen kargu dauden emakumeak, bakarrik dauden emakumeak eta gaixorik daudenak hartzeko, Berrizen egoitza zabalduko zutela jakitera eman zuen Eusko Jaurlaritzak hile hasieran. • 7

'Durangoko itsua': plazetan ezagun egin zen akordeoi irakaslea

Durango | 20 urte bete dira, aurten, Eusebio Bilbao akordeoilaria hil zela. Ikusmena galdu arren, musika ikastea lortu zuen, eta hainbati erakutsi ere egin zien gero. Bere familiak eta musikazaleek akorduan dute bera, baita bere ekarpena ere. • 2-3. orrialdeak



"2020ko munduko txapelketa aukera bat da"

ABADIÑO | Endika Zarrabeitiak munduko sokatira txapelketan parte hartu du Hegoafrikan. • 18

DURANGO FASHION GAUA

**IRAILAK 28, OSTIRALA
20:30ean, Andra Marian**





'Durangoko itsua' bere disko baterako atera zuen argazkian, Fernando eta Pedro semeekin batera.

Eusebio Bilbao, akordeoiaren bidez musika eta euskal kultura herritarrengana hurbildu zituen Durangoko itsua

Bilbao akordeoilariak ume eta gaztetxo askori eman zizkien klaseak, eta inguruko erromerietan ere ibiltzen zen; zenbait disko ere kaleratu zituen

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

"Anboto eta Oizen bien bitartian, Durango aurkitzen da, zelai ederrian. Ibaizabal ederrak urez asetzen dau (...) Herri honetan jaio, bertan nahi dot bizi, herri politagorik ez dot nik ikusi". Eusebio Bilbao akordeoilariak, *Durangoko itsua* lez ere ezagunak, sorlekuari eskainitako kantaren pasarteak dira horiek. Herri maite izeneko pieza,

hain maite zuen lurrari konposatua, Juan Olazaran idazle, abade eta organistaren testuak jantzitakoa. Frankismoaren sasoi ilunetan ekarpen berezia egin zuen musika eta euskal kultura zabaltzeko lanean; durangar ugarik ikasi zuten akordeoia jotzen bere eskolei esker, eta inguruko erromeriak alaitzeko protagonistetako bat zen.

6 urtegaz geratu zen itsu, Astolako lantegi inguruetan jolasean zebilela

Euskal Herrian akordeoilari itsu batez berba eginez gero, seguruenik Kaxiano etorriko zaigu burura; Eusebio Bilbao ez zen hain ezaguna bihurtu, baina bere lanak merezi du errekonozimendua. "Amamak zioen aititek ez zuela kanpoan famatua izan gura, ez zela hori bere helburua", kontatzen du Andrea Bilbaok, bere bilobetako batek.

6 urtegaz itsu geratua

San Fausto auzoko Zeharmendieta baserrian jaio zen Bilbao. 6 urtegaz geratu zen itsu, Astolako lantegi inguruetan jolasten zebila, kare bizia begietara joan zitzaionean. Urte batzuetara ebakuntza egiten saiatu zen Bartzelonan (Herrialde Katalanak), baina konponbiderik ez zeukala esan ei zion orduko mediku ospetsu batek.

"Amamak zioen aititek ez zuela kanpoan famatua izan gura, ez zela hori bere helburua"



Bilbao, gaztaroan, Bergarako Osintxu auzoko Marcos Elorza soinu-joleagaz batera. Andoni Lizarralde (txokomusikala.com)

Musikazale izan zen txikitatik eta, ikusmena galduta, entzumen eta ukimena indartu zituen bere pasioari bide emateko. Akordeoia jotzen ikasi eta gazte sasoiari han eta hemengo erromerietan ibiltzen hasi zen, batez ere Durangon. Bilobak kontatzen duenez, aitita bizi zen etxeko jabea Durangoko emakume boteretsu bat zen, eta haren laguntzari esker egin ahal izan zituen musika ikasketak.

Ikasitakoa irakasten

Akordeoia jotzeko zaletasuna bes-teei helarazteko asmoz, klaseak ematen hasi zen San Fauston.

Ume eta gazte askok ikasi zuten beragaz, eta tartean gaur egun ezagunak diren pertsona batzuek ere bai. Nazioarte mailako sariak jaso dituen eta Quebecoko kontserbatorioko irakasle izan den Luis Angel Sarobe pianistarena da kasuetako bat. Bilbaoren ikasle onenetako bat izan zen.

Erromerian erreleboa

Gaur egungo erromerietan jendetza batzen duen Luhartz taldeko Rafa Iriondok ere Bilbaori zor dio bere hasierako oinarri musikala. "Txikitan ehizarako afizioa nuen, eta musikagaz nahiko berandu hasi nintzen, 13 urteagaz. Ez neukan argi zer instrumentu jo, baina orduan ez zegoen eskaintza handirik ere. Musika ere arautua zen. Nire aita Eusebio Bilbao ezagutzen zuen, eta egun batean bere etxera joan ginen. 'Ez erosi instrumenturik. Esango dizut gaitasunik baduen ala ez', esan zion Bilbaok aitari niri buruz. Liburu bategaz ikasi behar genuen metodoa, baina nik soinuagaz kalera irteteko gogoia neukan, eta hilabetean ikasi nuen. 'Zuk ez duzu karrerarik egingo', esan zidan Eusebiok. Bera ere erromerietan ibiltzen zenez, errepertorioa prestatzen hasi ginen. Oso motibatuta joaten nintzen klasera". Instrumentua jotzeaz aparte, jendeagaz tratua zaintzen ere erakutsi ziola esan du Luhartzeko kideak, erro-

aitortzen du Iriondok, Bilbaogaz ume bat zenean modura.

Bien arteko lotura ez zen hor amaitu. "Gerora, anekdota modura, bere seme baten ezkontzan jo nuen, eta bera dantzan ibili zen", gogoratzen du Iriondok.

Bere bizitza Alde Zaharrean jaiotako Juanita Etxabururen ondoan egin zuen

Juanita Etxaburugaz bizia

20 urte betetzen dira aurten Eusebio Bilbao hil zenetik. Bere bizitza Durangoko Alde Zaharrean jaiotako Juanita Etxabururen ondoan egin zuen. Juanita orain dela gutxi hil da, abuztuaren 27an. Durangoko 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren lekukoetako bat izan zen Etxaburu, umea zela. Durango 1936 elkartearen webgunean (durango1936.org) jasota dago bere testigantza, eta honela dio bere ahizpa Purificacionegaz egindako grabazio batean: "Babeslekura joan ginen. Andra Maria bonbardatu zutela esaten zuten, eta segidan, zaurituak eta hilak gainean ospitalerantz zeramatzatela pasatzen hasi zen jendea Barrenkaletik. Hori ez zait inoiz ahaztu".



Rafa Iriondo

“Beragatik ez balitz, igual orain ez nintzen soinu-jole ibiliko”

merietara joan behar zenerako irakaspen lez. Irakasle gogorra zela oroitzen du, baina hortik aparte, atsegina. "Beti txisteren bat egiten zuen bere egoerari buruz". Hiru urtez ibili zen Bilbaogaz ikasten. "Gero, beste irakasle batzuekin ibili nintzen,

Bilbaoren ikaslerik onenetako bat Luis Angel Sarobe pianista izan zen

baina oso metodikoak ziren denak. Bilbaok era zabalago batean ulertzen zuen musika, eta bera lako beste jende bat egon balitz, orduan gauzak beste era batekoak izango lirateke gaur egun. Beragatik ez balitz, igual ez nintzateke orain soinu-jole ibiliko". Oraindik ilusioz jotzen duela eta ondo pasatzen duela

Estankoa eta ONCEn

Bikote ezaguna zen Durangon Eusebiok eta Juanitak osatutakoa. Izan ere, Andrea Bilbao bilobak kontatzen duenez, amamak estankoa zeukan San Faustoko baserrian, eta aitita ONCEko bulegoko arduraduna ere izan zen irakasle izateaz aparte. Kurutziaga kalean zegoen bulego hori. Eusebiok eta Juanitak hiru seme eduki zituzten: Fernando, Pedro eta Mikel. Goiko argazkian ageri den eran, akordeoilariak semeekin atera zituen argazkiak bere diskoen azalak ilustratzeko.

Eusebio Bilbao hainbat durangarrengan ondutako musikarekiko pasioa bere familian ere transmititu da, eta gaur egun Nuria Bilbao bilobak jarraitzen du akordeoia jotzen, aittaren eta bere abestien omenez Herri Maite izena duen taldean.

“Aititeren akordeoia zena erabiltzen dut oraindik ere”



Txikitatik jotzen du akordeoia Nuria Bilbaok.

Nuria Bilbao biloba da familian aittaren erreleboa hartu duena. Herri Maite musika taldean dabil gaur egun.

Zelan gogoratzen duzu aittita?

Bera hil zenean 14 urte nituen. Gogoratzen dut sukaldean egoten zela, beti aulki berean jarrita, irratia entzuten. Beti norbaitek lagunduta joaten zen, txakurrak edo makilagaz joan beharrean. Nire aurrean ez dakit sekula jo zuen akordeoia, baina, horrela bada, ez dut gogoratzen.

Beragaz ikasi al zenuen akordeoia jotzen?

Ez, Antonio Nuñezegaz ikasi nuen. 10 urte bete baino lehentxoago hasi nintzela uste dut. Gure taldean dagoen lagun batek bai, hark nire aittategaz ikasi zuen lehenengo. Jende askok esan izan dit aittategaz ikasi zuela; musika eskolako irakasleak esan zigun ohore bat zela nire semeari klasea ematea.

Zelan hasi zinen?

Amak sartu ninduen musikaren munduan, eta aittetek instrumentu hori aukeratu zuenez, ez nuen au-

kerarik eduki. Akordeoia neukan etxean, eta horixe jo behar nuen. Aittetek akordeoi txiki bat ere ba-zeukan, eta haregaz hasi nintzen ikasten. Gero, berak zeukan handi hura hartu nuen, eta oraindik ere horixe erabiltzen dut. Nire neba ere hasi zen jotzen, baina neu izan naiz jarraitu duen bakarra.

Akordeoia jotzeak ba al du zuretzat sentimendu edo lotura familiarrik?

Akordeoia berea izanda, beti dago lotura hori. Gaur egun taldean jotzerakoan ere lotzen dut beragaz. Noizean behin nire aittaren obrak jotzen ditugu eta beragaz akordatzten naiz.

Familian zeuk hartu zenuen erreleboa. Semei pasatuko diezu?

Erreleboa hortxe geratuko dela esango nuke. Gaur egun, instrumentuen aukera zabalagoa da, eta musikaz aparte ere hainbeste gauza dago... Seme bat badabil musikan, baina bateria du gustuko.

Diozunez, aittak ez zuen zure aurrean jo. Zuk bere aurrean bai?

Baietz esango nuke. Gerora, taldeagaz amamaren aurrean ere jo izan dut, eta "aititeren bat joko duzu?" galdetzen zidan.

“Euskal folklorea kalean egotea lortu zuenetako bat izan zen”

Bilbaoren ikasle izan zen Antonio Nuñez, gero beragaz klaseak ere eman zituen, eta gaur egun Herri Maite taldeko zuzendaria da. "Oso ondo iruditzen zait erreportajea egitea. Denbora gutxian, bere sasoiaren zerbait egin zuen jendea ahaztu dugu", adierazi du.

Zelan oroitzen duzu Eusebio Bilbao akordeoilaria?

Ezagutu nuenean, 11 urte nituen. Irakasle energikoa zen, eta sarri egiten zigun errieta. Baina, denbora pasatu ostean, eskertzen ditut errietok. Ikusi barik ere, atzamarrak ondo jarrita zenez, kan edo ez jakiten zuen, entzunda bakarrik. Eta zer esanik ez ukituz gero. Zentzumen horiek hipergaratuak zeuzkan. Exijentea zen eta emaitzak hor daude. Luis Angel Sarobe pianista ere beragaz hasi zen. Euskal Herriko hainbat lekutatik etortzen zitzaizkion ikasleak.

Ekarpena egin zuen euskal kulturaren alde.

50eko hamarkadan errepresio handia zegoen, batez ere kultura. Alboka ezin zen jo, txistua mugatuta zegoen, trikitixa borrokan



Nuñez, esku artean Bilbaoren lanak dituela.

zebilen... Bertsolariak zer esanik ez. Zerbait kulturala egin gura zuenak baimen polizialak eskatu behar zituen, eta hura egin behar zen gertatzen zenaren kargu. Baina gizon honi gai herrikoiak gus-tatzen zitzaizkion. Akordeoia instrumentu 'zuri' bat zenez, astiro astiro euskal folklorea sartu zuen. Habanera edo tangoen artean, disimulan *Antero txaparrotia* sartzen zuen esaterako, segidan *Francoren bibotea* zioen abestia. Euskal folklorea kalean egotea lortu zuen artistetako bat izan zen.

Diskoak ere kaleratu zituen, ezta?

Bi edo hiru LP grabatu zituen, eta gainerakoak singleak ziren, gehienak lau abestikoak. Etxean ditut guztiak, bat ezik. Batez ere abesti herrikoiak arreglatzen edo hobetzen zituen.

Zuen taldea Herri Maite deitzen da, bere omenez.

Aurretik, Eusebioren ikasleekin taldea osatu zen, baina bertan behera geratu zen. Gero, gaztetxo batzuei proposatu nien taldea sortzea. Aurten 30 urte bete ditugu dagoeneko.

“Venezuelan giza krisia dagoela esatea militarki okupatzeko aitzakia besterik ez da”

Ileana Rosa Medina Venezuelako diputatuak berbaldia eskaini zuen joan zen barikuan Durangon, Pascualina Curcio ekonomialariagaz eta Olga Alvarez abokatuagaz batera



Ileana Rosa Medina Carrasco
Asanblada Nazional Legegileko diputatua Venezuela

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Asanblada Nazional Legegilea eratu izanak bultzada eman dio Chavismoari. Baina egoera ekonomiko zailan daude, eta emigrazioa ugartu egin da. Diputatua izateaz aparte, aurrez NBEn enbaxadore izana da Medina, eta Patria Para Todos alderdiko idazkari nazionala ere bada gaur egun.

Emigrazioa existitzen dela onartzen duzue, baina diozue ez dela giza krisi bat.

Ez, noski. Moneta debaluatu zelako dabil jendea atzerrira joaten, gerra ekonomikoaren eraginez. Presidentea soldatak orekatzen saiatzen den aldiro, aurkariak biderkatu egiten dituzte prezioak. Aspaldiko plan baten barruan dago, hedabi-

deen bidez zabaltzen dena. Migrazioa eskubide bat da; European ere handia egon da herrialdeen artean, eta horrek ez du esan gura krisirik dagoenik. Gatazka armatu batek bai eragin dezake giza krisi bat, normaltasuna apurtu eta ez dagoelako eskolarik edo zerbitzurik. Baina hori ez da Venezuelen gertatzen. Giza krisia dagoela esatea militarki okupatzeko aitzakia besterik ez da.

Atzerriko esku-hartze militar baten beldur zarete?

Maduroren aurkako magnizidioa New York Timesek ere onartu zuen; droneak Kolonbiakoak zirela eta AEBak jakitun zirela zioen egunkariak. Argi dugu gerra oihuak entzuten direla, baina Venezuelako herri osoak badaki guri gutxien interesatzen zaiguna gerra-ban-

derak ateratzea dela. Gure herria defendatzeko prest gaude, baina uste dugu gerra irabazteko modurik onena bakea mantentzea dela. Garraioa eten dute, baina jendea lanera doa, zinera, umeak eskolara... oporretarako plana egon da uda honetan. Esku-hartze militarrrerako arriskuaz kontziente gara, eta munduko lagunei babesa eska-

“**Presidentea soldatak orekatzen saiatzen den aldiro, aurkariak biderkatu egiten dituzte prezioak**”

tzen ari gara. Venezuelako herriak sakoneko maitasuna dio iraultzari, eta egiten ari garena posible dela uste duten munduko herri askorentzako esperantza bat gara.

Zergatik uste duzue Chavismoa boteretik kendu gura dutela?

Lehenik, petrolioagatik eta baliabide handiengatik. Bigarrenik, Asanblada Nazional Legegilea sustatu genuelako. Ekuadorren, Bolivian eta Brasilen eragina eduki zuen gero. Plutokrazia amaitu da, asanbladagaz beste tresna demokratiko batzuk ditugu, armarik barik, eta eztabaida eginez. Chavezek aldarrikatutako sozialismoa posible zela erakusten hasi ginen. Oposiziokoek 2015ean legebiltzarrrerako hauteskundeak irabazi zituztenean, Obamak landu eta gerora Trumpek martxan jarritako dekretuagaz, Maduro kenduko zutela erabaki zuten. AEBek eta Europar Batasunak bat egin zuten gure aurka orduan.

Elikagaien eta botiken blokeoa sufritzen ari zarete salatu duzue.

Min egin digute, baina lanean ari den gobernu bat dago, indar politikoekin, ekoizle txiki eta ertainekin, herri mugimenduekin eta kontseilu komunalekin batera. Indarra galduz joan den oposizioa hedabideek, enpresari handiek, AEBek eta EBk ordezkatu dute. Enbargoa gelditu beharra dute, gizateriaren aurkako delitua suposatzen baitu.

20 urte beteko dira laster Chavezek iraultza bolibartarra piztu zuenetik. Estatu kolpeak, atentatuak eta sabotajeak izan dira sarri.

Petrolioaren etekinak finantziazioa ekarri zuen, ordura arte enpresariena zena, eta aukera berdintasuna sustatu zen horregaz. Duintasuna lortzeko prozesu bat izan zen. Baina aurkariaren artean gorroto handia zabaldu zen, joko politikotik aparte geratzeaz gainera joko ekonomikotik kanpo geratu zirelako. 2008an AEBetan hasitako krisiak European eragin zuen, baina Hego Amerikan ez, eredu integratzaile bat abiatuta geneukalako. Bueltatzen ari direnek diote Perun eta Kolonbian esklabuak direla, 12 orduko lanaldiak egiten dituztela han, eta ohartu dira euren herrian Lanaren Legeak duintasuna dakarrela. %6ko langabezia tasa dugu.



Jesica Ruiz izango da Durangoko PSE-EEren alkategaia 2019ko hauteskundeetan

DURANGO • M.O.

Jesica Ruiz izango da Durangoko PSE-EEren alkategaia 2019ko hauteskundeetarako, alderdi horrek prentsa ohar bidez jakitera eman duenez. Durangoko batzorde lokalean instituzio arloko idazkaria da Ruiz, eta hemendik aurrera hauteskunderi begira sortuko dituzten lantaldeen gidaritza hartuko du. Materialen Zientzia eta Teknologian doktore da. Aurreko legealdian Pilar Rios egungo alkateordea izan zen PSE-EEren alkategaia.

PSE-EEko Mauricio Garciak estazioko planari buruzko galdeketa eskatu du

DURANGO • J.G.

Estazio eta trenbide zaharreko lurretan etxe dorreak eraikitzekeko planaren aurkako alegazioa aurkeztu zuen eguaztenean Mauricio García PSE-EEko zinegotziak. Durangoko EAJk eta PSE-EEK gobernu akordioa duten arren, Garciak bestelako iritzia plazaratu du. "Ez nator bat etxe dorre erraldoi horiek eraikitzeagaz. Eraikin baxuagoak izan beharko lirateke, eta horietako asko alokairura bideratutakoak", dio. "Galdeketa loteslea" egitea eskatu du.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko irailaren 28a
16. urtea - 734. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

50 modelo Andra Mariko elizpeko pasarelara igoko dira Fashion Gauean, gaur

22 komertziok udazken-negu denboraldiko arropak, oinetakoak eta osagarriak erakutsiko dituzte



Aurreko edizio bateko pasarelaren argazkia.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Andra Mariko elizpea pasarela bilakatuko da Dendak Bai elkarteak antolatzen duen Fashion Gauean, gaur, 20:30ean. 22 komertziok udazken-negu denboraldiko arropa, oinetako eta osagarriak erakutsiko dituzte. "Desfileagaz Duran-

gok duen eskaintza komertziala erakutsi gura dugu", dio Agurne Azkarate Dendak Bai kideak. Bestalde, 500 euro banatuko dituzte deskontu txarteletan.

Urriaren 6an SF 40 agentziak Fashion Gauerako modeloak aukeratzeko castinga egin zuen Durangon. Hautaketaren helburua adin guztietako herritarren parte-hartzea bultzatzea izan zen. Hartara, desfilean 15 modelo profesionalek eta 35 hasiberrik parte hartuko dute. "Castinga oso arrakastatsua izan zen", azaldu dute Dendak Bai elkarte kideek.

Desfilean 15 modelo profesionalek eta 35 hasiberrik parte hartuko dute



Besteak beste, OHZren indize altuak kaltetutako zenbait bizilagun joan ziren osoko bilkurara.

Zergak %1,1 igo, eta OHZren indize altua %0,25era bajatu dute Durangon

Katastroko balioen kalkulua aldatzea eskatuko dio Durangoko Udalak Aldundiari

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2019rako udal tasa eta zergek %1,1eko igoera edukiko dute, martitzeneko osoko bilkuran onartu eta gero. EAJ eta PSE-EEren gobernuaren proposamena EH Bilduren abstentzioagaz irten zen aurrera. Trukean, Ondasun Higiezin Zergan (OHZ) eragiten duten katastroko balioen aldaketa bultzatzeko konpromisoa exijitu zuen EH Bilduk. Aldaketa gauzatzea eskatuko dio udalak Aldundiari.

Izan ere, 2017an Aldundiak eginiko katastroko balioen eguneratzea arazo iturri bilakatu

da Durangon. Batetik, zonifikazioaren eraginez auzo batzuetan erdigunean –Ezkurdin, adibidez– baino gehiago ordaintzen dutelako metro karratuko, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak salatu dutenez. Bestetik, udalak ezarritako indize altuaren eraginez (180.000 eurotik gora baloratutako etxeetarako) bizilagun batzuei biderkatu egin zitelako ordainketa. 2017an %0,335ean ipini zuten, 2018an %0,29an, eta 2019rako eta 2020rako %0,25era bajatuko dute.

Gobernuak uste du jaitsiera horregaz orain urte biko ordainketa

errekuperatuko dutela kaltetuek, Goiztidi Diazek (EAJ) dioenez.

Pilar Riosek (PSE-EE) adierazi zuen ordenantza fiskalak "ikuspegi sozialetik" landu dituztela. Iker Urkizaren (EH Bildu) arabera, "azalpen handirik barik" igo dira zergak, eta "ez da justua" denei berdin igotzea. Jorge Varelak (Herriaren Eskubidea) kritikatu zuen gehiago kobratuko dela "okertu diren zerbitzuengatik, zabor bilketarena eta garbiketarena kasurako". Fran Garatek (PP) beste era batera igoko lituzke zergak, kutsatzen duten ibilgailuei tasa igota, adibidez.

Urte biko ikasleei eskola garraioa bermatzeko eskatu du EH Bilduk

Sare publikoko urte bira arteko umeak ezin dira eskola garraioan heldu ikastetxera



DURANGALDEA • J.G. / M.O.

Urte biko ikasleei eskola garraioa bermatzeko eskatu dio EH Bilduk Hezkuntza Sailari. Sare publikoko urte biko ikasleei garraio zerbitzua kendu die ikasturte honetan, baina "erabaki horregaz sekulako arazoak sortu dizkie hiriguneetatik kanpo eta baserrietan bizi diren familiei", salatu dute. Antza denez, segurtasunagaz lotutako neurri baten aplikazioak eragin du arazoa.

Prentsaurrekoan adierazi dutenez, arazoa "bereziki larria" da herrietan. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak azaldu du familia eta ikastetxeetako zuzendariekin jarri direla harremanetan, udalaren babesa eta laguntza eskaintzeko, garraio zerbitzua bat-batean kentzeak "kalte handia" egin dielako familiei.

Izurtzako, Elorrioko eta Mañariko alkateak, Rebeka Uberagaz prentsaurrekoan.

Zure lanarekin

HAZILAN

ENPLEGUAREN ALDEKO PROIEKTU HANDIA

PRESTATUTA AL ZAUDE BENETAN?

25-35 URTEKO GAZTEA BAZARA, GOI MAIALAKO IKASKETAK DITUZU, BAINA EZ DUZU ZURE TOKIA AURKITZEN?

HAZILAN PROGRAMAK LANA LORTZEKO BEHAR DITUZUN BALIABIDEAK EMANGO DIZKIZU

Durangaldeko Behargintza

EUROPEAR BAZKARITZA

Garapen

Egun osoko
egitarauagaz, Artzain
Eguna ospatuko dute
zapatuan Axpen

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Latxa eta Karrantzar Arrazetako
Ardi Hazleen Elkartek (ACOL)
antolatuta, Artzain Eguna ospa-
tuko dute Axpen. 11:00etan ardi
eta ahari erakusketa egongo da

**Ardi eta ahari
erakusketa, ardi-txakur
txapelketa eta ardi-mozte
erakusketa egingo dituzte**

eta, osterako, ardi-txakurren
txapelketa antolatu dute. Bestal-
de, ardi-mozte erakusketa egin-
go dute, eta ACOLeko bazkide
diren artzainen gazta lehiaketa.
Gazta eta sagardo lehiaketa ere
egongo dela jakinarazi dute.

Hontza Museoak
neguko ordutegiari
ekingo dio
astelehenetik aurrera

MAÑARIA • J.D.
Astelehentik martxoa amaitu
arte iraungo du neguko ordu-
tegiak Hontza Museoa. Marti-
tzenetik barikura, 17:00etatik
19:00etara zabalduko dute;
zapatuetan, arratsalde ez ezik,
11:00etatik 13:00etara ere bai.
Igandeetan goizez bakarrik
egongo da zabalik, 14:00ak arte.
Nagusientzako prezioa 4 euro
da, eta jubilatuen eta 12-15 urte
artekoena, 3 euro. 12 urtetik
beherakoek doako sarrera izan-
go dute.

Zumba eta mantentze
gimnasia ikastaroetan
aritzeko plazak
daude oraindik

MALLABIA • J.D.
Astelehenean makina bat ikas-
taro hasiko dituzte Mallabiko
pilotalekuan, eta beteta ez dau-
denetan izena eman daiteke,
ikastaroa hasita egon arren.
Mantentze gimnasia eta zum-
ba dira izena emateko zabalik
jarraitzen duten ikastaro bi.
Txirrin-Bike ikastaroa, aldiz,
beteta dago. Baita Hipo-Pilates
ikastaroko arratsaldeko taldea
ere; goizeko saiorako, plazak
daude oraindik. Pilotalekura
bertaratuta eman daiteke izena.

“Obrak Ermuan izan arren, Eitzagan eragiten
dute, eta bertakoak ahaztuta sentitzen gara”

Aurreko astean zabaldu zuten Ermuako saihezbidea, baina, hala ere, urte biko obren eragina "sufritzen" jarraitzen dute Eitzagan



Morales, obren aurrean, ustez kamioiei igarotzea galarazteko helburua duten hesiek.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO
Eitzagako bizilagunak "neka-
tuta" daude azken urteetako
obrekin auzoari ematen ari zaion
trataeragatik. Kamioen joan-
etorriak, espazio publikoaren
okupazioa, pitzadurak bidean...
Hamaika dira egunero bizi dituz-
ten trabak, eta horiek konpon-
tzeko eskatu diete Zaldibarko
eta Ermuako udalei, Bizkaiko
Aldundiari eta Euskal Trenbide
Sareari (ETS). Bizilagun horieta-
ko bat da Oskar Morales.

Zer suposatu dizuete obrek?
Saihezbidearen obrak amaitu
dira, baina ETSren tuneleko
lanek hor jarraitzen dute. Oبرا-
ko lanek handienak amaitu di-
tuzte, baina oraindik egunero
sufritzen dugu eragina. ETSk
ez ditu betetzen hartu zituen
konpromiso minimoak ere.
Saihezbidekoek gehiago zaindu
gaituzte, baina, hala ere, erre-
pide bat guztiz pitzatua utzi du-
te, eta ez dakigu konponduko
duten ala ez.
**Zeintzuk dira ETSren konpromiso
horiek?**
Ahal den neurrian, auzotik
ez zirela pasatuko, adibidez.
Kamioiak hemendik igaro eta
buelta ere ematen dute; joan-
etorria eguneroko kontua da.

Etxeen aurretik ez zirela pasa-
tuko, eta gauez lanik ez zutela
egingo ere esan zuten, baina
berdin jarraitzen dute. Kaltea
egina dago, baina, behintzat,
obra amaitu arte geratzen den
hileetan gu errespetatzea eska-
tzen dugu. Azpikontratek ere
bete beharko lituzkete arauak.
Baita udalek ere. Obrak Er-
muan izan arren, eragina Ei-
tzagan jasaten dugu; eta, aldi
berean, Zaldibarretik urrun
gaudenez, gutaz ahaztu dira
guztiak.
Baztertuta sentitzen zarete?
Zaldibar hemen amaitzen da,
eta hor alboan Ermua hasten
da, baina inor ez da gutaz ar-
duratzen. Inon ere ez gaudela
ematen du. Udalek elkarri biz-
karreratzen diote arazoa, eta
ez dute bere gain hartzen Eitza-
gako ardura. Bitartean, baina,
obrak ez dira amaitu, eta geu
gara horiek kontrolatzen egon
behar garenak. Langileek ez di-
tuzte seinaleak errespetatzen,
arduradunek ez dietelako ezer
esaten askotan. Udaltzainik
ez egotera, geuk egiten dugu
lan hori. Hainbat kexa sartu
ditugu, baina ez dute eraginik
arduradunengan. Hitz politikak
entzuten ditugu, baina ez dute
ezer egiten, eta nekatuta gaude.

Haurren minbiziaren aurkako elkartasun asteburuaren
harira, Zaldibarko Olazar pilotalekua bete gura dute

Aspanovas eta Los Alakranes del Norte elkarteek bi eguneko ekimen sorta antolatu dute elkarlanean

ZALDIBAR • A.M.
Gaurtik hasita, maratoni solida-
rioaren edizio berri bati ekingo
diote Zaldibarren. Aspanovas el-
karteko en esanetan, jendearen
kontzientzia pizteaz gainera, babes

**Doinu ezberdinak
jorratzen dituzten
bost taldek kontzertua
eskainiko dute zapatuan**

egongo da, 22:00etan. Zapatuan,
10:30ean hasita, hainbat ekitaldi
egongo dira. 19:00etan, kontzer-
tuak hasiko dira.

Elkartasun kamiseta
Elkartasun asteburu honen aurre-

tik ere aritu dira Los Alakranes
del Norte elkarteko kideak dirua
biltzen. Zortzi euroan egon da
salgai kamiseta, herriko zenbait
gunetan. Hainbat pertsona eza-
gunek bat egin dute asteburuko
kanpainagaz.

**Spinning maratonia,
saskibaloia, haurrentzako
tailerrak... denetariko
ekitaldiak egingo dira**

ekonomikoa lortzea bilatzen du
ekitaldi sortak. Los Alakranes del
Norte elkarte zaldibartarragaz ba-
tera, bi eguneko egitaraua antolatu
dute.
Barikuan, Yoni Prohibido eta
Gotzon Arrienen bakarrikzeta



Antolatzaileek kamisetak kaleratu dituzte.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Adin txikikoen kargu dauden emakumeak, bakarrik dauden emakumeak eta gaixorik daudenak hartzeko, Berrizen egoitza zabalduko zutela jakitera eman zuen Eusko Jaurlaritzak irail hasieran. Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordeak azaldu zuenez, azken aldi hainbat premia-egoera antzeman zituzten, eta batik bat kolektibo ahulenei arreta bereziagoa emateko beharra aintzat hartuta, egonaldi luzeagoko zentroa zabaltzea erabaki zutela jakinarazi zuen.

Hile erdiaz geroztik zabalik dago Olakueta aterpetxea, eta dagoeneko hainbat pertsona igaro dira bertatik, Jaurlaritzako iturriek azaldu dutenez.

Jaurlaritzak eta EDE Fundazioak kudeatzen duten zentroan, etorkinek hamabost egunez hartu ahal dute atseden. Orain arte, Jaurlaritzak erkidegoko hiriburuetan eta Irunen izan ditu etorkinei aterpea emateko zerbitzuak, baina gehienez hiru egunez egoteko aukera izaten dute bertan. Jaurlaritzak jakitera eman duenez, emakume eta gaixoen beharrezana ikusita, egonaldi luzeagoko zentroa zabaltzea erabaki dute.

Orain arte, aldi baterako etorkinentzat 213 plaza egon dira erkidegoan. Olakueta aterpetxeak,

Dagoeneko lehenengo migratzaileak hartzen hasi dira Berrizko zentroan

Berrizen zabaldu duten zentroak 25 etorkinentzako tokia du; bertan, hamabost egunez egon ahal izango dira



Olakueta aterpetxean zabaldu dute zentro berria.

berriz, beste 25 lagunentzako tokia izango du. Egun batzuk zentro hauetan egin, eta European gora bidaian jarraitzea izaten da etorkinik gehienek asmoa.

Erosotasuna eta lasaitasuna

Horrez gain, Berrizko Olakueta aterpetxearen berri EDE Fundazioaren bidez izan zutela eta aterpetxea etorkinei erosotasuna eta lasaitasuna bermatzeko toki aproposa iruditu zitzaizela adierazi dute Jaurlaritzako iturriek. Horretarako Pertsona gutxiko logelak atondu dituzte. Horrez gain, hainbat komun daude.

Orain arte, aldi baterako etorkinentzako 213 plaza egon dira erkidegoan

Etorkinei erosotasuna eta lasaitasuna bermatzeko tokia da Berrizko Olakueta aterpetxea

Gainera, ostatuaz, elikaduraz eta arropaz aparte, baliabide gehiago edukiko dituzte etorkinek Berrizen, bizi duten egoerari aurre egin ahal izateko.



lazgo sanmigeletako irudi bat.

Montoian elkartuta, bete-betean sartu dira iurretarrak San Migel jailetan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Montoitik jaurtitako txapli-goekin batera jai-giroan sartu dira gaur Iurretan, eta hamaika ekitalditan parte hartzeko aukera dute. Urriaren 7a bitartean, musika kontzertuak, erronomia, herri kirolak, gastronomia lehiaketak, bertsolariak eta dantzariak egongo dira. Mozo-erro eguna eta XX. Nekazaritza eta Artisanautza ere bai.

Jaien iragarle den Doniel Atxa igoko dute gaur plazan, eta, ostean, dantzariak azken entsegua eskainiko dute. Laiotz taldeagaz erronomia egongo da —atsedenaldirako, playbacka antolatu dute— eta, Askondon, Golazen karaokea.



107,8
Frekuentzia

Durango irratia
Gertukoena

Irrati tailerrak eskolartekoekin, Gorabide eta Immigrazio sailarekin elkarlana eta Durangoko elkarte eta kirol klubetako parte-hartzea.

Larrasoloeta kalea, 5
48200 Durango, Bizkaia
Tf.: 946 21 55 99

durangoirratia@durango-udala.net
www.durango-udala.net/durangoirratia

 Durango Irratia
<https://www.facebook.com/durangoirratia>

 @Durango_Irratia

Denboraldi BERRIA


durango irratia


DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Otxandioko Udala hitzarmen bat lantzen dabil Eusko Jaurlaritzagaz, alokairuzko etxebizitzak sustatzeko

Udalak etxeak egiteko lurak jarriko lituzke, eta Jaurlaritzako Alokabide programaren bidez kudeatuko lirateke

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak alokairu publiko etxebizitzak sustatu gura ditu herrian. Bizileku bat aurkitzeko bidea erraztu gura die horretarako interesa duten otxandiar guztiei, eta egitasmo hori bideratuko lukeen hitzarmen bat negoziatzeko ari da Eusko Jaurlaritzagaz.

Plana honako hau da: udalak lurak jarriko lituzke, eta bizilekuak Eusko Jaurlaritzako Alokabide pro-

Alokabiden emandako izen kopuruaren arabera kalkulatu dute zein den herrian dagoen beharrezana

gramaren bidez kudeatuko lirateke. Etxebizitzak egiteko proposak diren lau lursail identifikatu ditu udalak. Lursail horietako bat edo bat baino gehiago jartzeko prest daude. "Une honetan Jaurlaritzagaz aztertzen gabiltza zer baldintzatan

egin daitekeen horrelako promozio bat. Hitzarmen proposamen bat mahai gainean dago dagoeneko, eta hori lantzen ari gara", azaldu du Urtzi Armendariz alkateak. Akordioa lantzen dabiltzan bitartean,

etxebizitza arloan herrian dagoen benetako beharrezana zein den jakin gura dute.

Hori dela-eta, alokairuzko etxebizitza batean sartzeko interesa duten herritarrei Alokabiden

izena emateko deia egiten die udalak. Hartara, izen-emateen kopuruak beharrezana zein den eta zenbat etxebizitza sustatzea komeni den jakiteko argibidea eskainiko luke.



Etxebizitzak egiteko proposak diren hainbat lursail identifikatu ditu udalak.



Jaietan igerilekura sartu ziren.

Ekintza bandalikoan ondorioz, zainketa kamerak jarriko dituzte udazkenean

OTXANDIO • J.D.

Ekintza bandalikoak ez dira berriak herrian, baina udalak egoera bideratzeko orain arte egin dituen saiakerek —eskolako gazteekin egindako kontzientziazio batzarrak, esate baterako— ez dute fruiturik eman. Izan ere, uztailean, santamania jaietako gau batean, igerilekura sartu eta, besteak beste, ingurua zikindu eta materiala apurtu zuen norbaitek. Frontoi inguruko azpiegiturretan ere kalteak eragin dituzte. Horren ondorioz, udazkenean frontoi inguruan zainketa kamerak jartzea erabaki du udalak. Disuasio-neurri moduan erabiliko dituzte.



Helmugara batera heldu eta txapel bana jaso dute traileko lehen mutil biek

GARAI • A.M. / M.O.

Asto Trail lasterketaren bigarren edizioa jokatu zen joan zen domekan, eta mutilen kategorian bitxikeria gertatu zen. Helmugara elkarregaz heldu ziren lehenengo korrikalari biak, eta txapela nori eman ezin erabakita, antolatzaileek bie ematea erabaki zuten. Horrela, batek egunean bertan jantzi zuen, eta besteari etxera bidaliko diote. Gartzen Elejabarrieta eta Ion Vegas izan ziren irabazleak. Bestalde, Lide Gorostiola izan zen emakumetan garaile.

57 lagunek parte hartu zuten. 29 kilometrotan 1.660 metroko desnibel positiboari aurre egin behar izan zioten.

AHTaren obretako langileen baldintzak ikertzeko eskaera

Joan zen zapatuan AHTaren obretako langile bat hil zen

ZORNOTZA • J.D.

Joan zen zapatuan 46 urteko langile bat hil zen Zornotzako AHTaren obretan. Heriotza hori salatzeke, gehiengo sindikalak kontzentrazioa deitu zuen eguaztenean. *Lan istripu gehiagorik ez; prekarietatea hiltzailea* zioen pankartaren atzean batu ziren. Hildako langilearen zein langile denen lan baldintzak ikertzeko eskatu zieten Osalan eta Lan Ikuskaritzari. Esaterako,

Ezker Abertzaleak eta gehiengo sindikalak kontzentrazio bana egin dute Zornotzan

egun hartan bero handia egin zuela gogoratu dute. Martitzen arratsaldean beste kontzentrazio batera deitu zuen Zornotzako Ezker Abertzaleak.



Gehiengo sindikalak deituta, eguaztenean kontzentrazioa egin zuten Zornotzan.

Domekara arte iraungo du Memoriaren Plazak Zornotzan

Hainbat indarkeria mota jasan dituztenen testigantzak jasotzen dituen proiektzioak eskaintzen ari dira egunotan

ZORNOTZA • J.D.

Gogora institutuak beste hainbat herritan egin duen lez, Zornotzara ere eramane du Memoriaren Plaza. Udaletxe parean jarritako karpan ETaren, GALen, BVeren, polizia-aren eta frankismoaren biktimen testigantzak proiektatzen ari dira egunotan, indarkeria mota bakoitzari espazio bat eskainita. Aurkezpen ekitaldian Aintzane Ezenarro Gogora institutuko

zuzendariak nabarmendu zuen biktima horiek "paper aktibo" bat hartu dutela bizikidetzaren alde. "Gehienek bat egiten dute indarkeriaren aurkako mezuan, baina gorrotoaren aurkakoan ere bai".

Memoria jendarteratzea eta denen artean egindako gogoeta sustatzea dira helburuak

Emakume batek jasandako mehatxuak salatu dituzte

ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako emakume batek gizon baten kontrako salaketa jarri duela jakinarazi du Zornotzako Talde Feministak. Emakume horrek "mehatxuz eta irainez" beteriko audioak jaso dituela azaldu dute ohar batean. Gainera,

diotenez, "gizonak emakumearen aurkako irainak zabaltu ditu sare sozialetan". Emakumeak "salatu egin du" gertatutakoa, eta epai-leak emakumearekiko "urruntze agindua eta beragaz komunikatzeko debekua" ezarri dizkio gizonari, oharraren arabera.

Sare sozialetan izaten diren emakumeen kontrako erasoak salatu ditu talde feministak. "Gure gazteen artean hain naturalizatu dauden jarrera toxikoak dira".

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten
**HAURRESKOLETAN HAURREN
ONGIZATEA HELBURU**



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIOKO HAURRESKOLA
Goietia, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus




ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**

Urriaren
1etik 9ra

• www.haurreskolak.eus •



Elorriarren lehentasunak zeintzuk diren jakin gura du udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2019ko aurrekontuetara begira herritarren lehentasunak zeintzuk diren eta elorriarrek udalaren inguruan ze iritzi eta ze kezka dituzten jakin gura du udalak. Horretarako, Aztiker enpresaren laguntzagaz inkesta telefoniko eta presentzialak egingo dituzte. Horrez gain, aurrerago, etxe guztietara galdetegi bat ere bidaliko dutela jakitera eman dute prentsa ohar bidez.

Aztiker enpresaren inkesta telefoniko eta presentzialak egingo ditu Elorrioren

Udaleko kideek adierazi dutenez, hurrengo urteetan burutu beharreko proiektuen diagnosi bat egiterako orduan udalarentzat "ezinbestekoa" da herritarren iritzia eta ohiturak zeintzuk diren jakitea.

Munduko emakumeen topaketaren lehen jardunaldia egingo dute, Elorrioren

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioren munduko hainbat lekutatik heldutako 200 emakume inguru bizi dira, eta emakumeen integrazioa, bizikidetzak eta elkar ezagutza bultzatzeko asmoz, munduko emakumeen topaketak antolatu ditu udalak. Lehenengo jardunaldia urriaren 8an izango da, bigarrena azaroren 5ean eta hirugarrena abenduaren 3an.

Cony Carranza herri hezitzaile feministak dinamizatzeko du tailerra, eta parte hartu

Carranzak dinamizatuko duen tailerrean parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute

gura dutenek urriaren 3a baino lehen eman beharko dute izena berdintasuna@elorrio.eus helbidera idatzita edo 946 570 809 telefono zenbakira deituta. Bestalde, ludoketa zerbitzua egongo dela jakitera eman dute.

Herritarren mugimendu bat sortzeko saiakera, errepideko arazoan aurrean

Herritar talde batek batzar irekira deitu du datorren martitzen arratsalderako, Izurtzako jubilatuen lokalean; mugimendu baten sorrera gorpuzteko lehenengo saiakera izango da

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Errepideko arazoan aurrean, herritarrek mugitzen ari dira. Jende talde batek batzar irekira deitu du datorren asteko martitzenerako,

19:00etan, jubilatuen lokalean. Buzirik buzoi banatuko duten gutun batean, batzarrera joateko deia egingo diete izurtzarrei. Konponbidea eskatzeko edo bilatzeko lan egingo

duen plataforma bat edo bestelako talde bat bihurtzea da helburua.

Orain aste bi udalak deitutako herri batzarra izan zen lehenengo pausoa. Batzarrera batutako herri-



Kale-argietako mezu batzuk gidariei zuenduta daude, eta beste batzuk, Bizkaiko Aldundiari.

tar talde batek erronkari heltzea erabaki zuen, eta eurak dira martitzeneko herri batzarrera deitu dutenak.

Kale-argiak mezuz beteta

Durangotik Izurtzarainoko kale-argiak mezuz beteta daude, udalak Europako Mugikortasun Astearen harira abiatutako kanpaina baten ondorioz. Mezu batzuek herrigunean abiadura moteltzeko eskatzen diete gidariei, eta beste batzuk Aldundiari zuzenean bideratutakoak dira, irtenbide eske.



LOREA MUÑOZ

Horrez gain, Lorea Muñoz alkatearen esanetan, "askotan" jo dute Aldundira irtenbide eske, baina, oraingoz, fruiturik barik. "Aldundiarentzat gastu txikia litzateke abiadura gutxituko lukeen biribilgune bat egitea", azaldu du Muñozek. Bizkaiko Aldundiak ez duela Izurtza aintzat hartzen eta Durangotik Mañarirainoko errepide zatirako ez daukala plan zehatzik salatzen du.

Lorea Muñoz alkatearen esanetan, "askotan" jo dute Aldundira irtenbide eske, baina, oraingoz, fruiturik barik. "Aldundiarentzat gastu txikia litzateke abiadura gutxituko lukeen biribilgune bat egitea", azaldu du Muñozek. Bizkaiko Aldundiak ez duela Izurtza aintzat hartzen eta Durangotik Mañarirainoko errepide zatirako ez daukala plan zehatzik salatzen du.

Navarro ez da aurkeztuko maitzean egingo diren udal hauteskundeetara

Jose Luis Navarro Abadiño alkatea ez da berrir hauteskundeetara aurkeztuko; Antonio Serrano zinegotziak ere utziko du udala; hogeina urte egin dituzte bertan



Jose Luis Navarro, Abadiño udalaren udaltzaia.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Politikan hamarkada bi egin eta gero, utzi egingo duela esan du Jose Luis Navarro Abadiño alkateak. Hiru legegintzaldi alkatetzan, eta beste bi zinegotzi lanetan egin ditu guztira. "Oso pozik egon naiz abadiñarrentzat beharrean, baina nekatu naiz, eta niretzat eta familiarentzat denbora gehiago hartzeko unea heldu dela uste dut", adierazi du alkateak. 2019ko udal hauteskundeetara aurkeztu ez arren, alderdiari laguntzeko prest agertu da. Oraindik ez da publiko egin Abadiño Independenteen alkatetzaia nor izango den, Navaroren esanetan erabakia hartuta dagoen arren. "Lantalde polita geratuko dela aurreratu dezaket", esan du. Alen sorreratik Navarrogaz batera egon den Antonio Serranok ere politika utziko duela iragarri du. Gaur egun, EAJgaz batera gobernatzen du Alk.

Liberazio aldatzea

Bestalde, iraileko osoko bilkuran liberazioa aldatzea onartu da. Eneko Etxebarria beharrean, Iñaki Rekalde izango da EAJren zinegotzi liberatua.

Zelaieta oinezkoentzat egokitze obrek ika-mika piztu dute osoko bilkuran

ABADIÑO • A.M.

Joan den astean ekimena egin ostean (Zelaieta auzoko gune "ez irisgarriak eta arriskutsuak") markatu zituzten), aste honetako osoko bilkuran mozioa sartu du EH Bilduk. Alderdi abertzale

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, Zelaietan irisgarritasuna bermatzeko da

learen ustetan, udal gobernuak bestelako lehentasun batzuk ditu bizilagunen irisgarritasunaren aurretik, eta futbol zelaiak konpontzea jarri zuten adibide moduan. Jose Luis Navarrok, bestalde, kalean jarrera "ez erregularrak" izatea leporatu zien zinegotzi independentistei. "Ikaragarria da herriaren mesedetan lan egin behar luketenak kaleak margotzen ikustea", esan zuen. Alkatearen berbetan, maiatza heldu orduko Zelaieta oinezkoentzat egokituko dute.



'Eduardo Urzelai, Erri-gizona' liburuko argazkia.

Hareek denporak!

Urtain boxeolariaren erakustaldiak Berrizen

Jose Manuel Ibar Urtain Aizar-nazabalgo boxeolaria ezaguna egin zen munduan, Europako txapeldun izan baitzen birritan, 70eko hamarkadaren hasieran. Boxeoan arrakasta lortu zuen gizon hori Berrizen ere egon zen borrokaldiak egiten.

Izan ere, aizkolaria eta harri-jasotzailea ere bazen Urtain, eta Berrizko herri kirol erakustal-dietan parte hartu zuen aurre-

tik. Eduardo Urzelai Astegiak sustatzen zituen jaialdi haiek, eta berak gonbidatuta etorri zen gero boxeo-borrokaldietara.

Kirol eta kultur arloko ekin-tza ugari antolatu zituen Ur-zelaik –elefantearen dema so-natua ere bai-. Gerora, EAJko diputatu ere izan zen. Martin Olazarrek bere omenez landu eta Gaztedi elkarteak kaleratu-tako liburukoa da argazkia. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Idoia
Agorria Martinez
PSE-EE



Erasoei stop

2017ko urrian EraStop-AgreStop aplikazioa jarri genuen abian, zerbait egin behar genuelako erasoen aurrean: geldiarazi nahi genituen, geure burua babestu.

Herritar guztiek dute eskura aplikazioa, erasoak salatze-ko edo lagun egiteko, baina bera-riaz diseinatuta dago emaku-meak ahaldundutako. Tresnak aukera ematen digu lagunduta joateko, eta eraso bat ikusten ba-dugu, baten batek eraso egiten badigu edo horretan saiatzen bada, horren berri emateko.

Mugikorra oso gailu arrunta da, normalean eskura izaten du-guna. Aplikazio honi esker, mu-gikorra oso tresna egokia da ka-letik seguruago joan gaitezen, lagunduta, batez ere urdurita-sunez beteriko une horietan, jaietan edo asteburuetan, etxera gaeuz itzultzen garenean.

Bertsio berriak bi botoi ditu: *Lagundu botoiaren* bidez, apli-kazioa deskargatuta duen zure kontaktuen zerrendako lagun edo senide bati eskatu ahal dio-zu zurekin birtualki joateko. *Poliziar* abisatu botoia larrialdi-koa da. Sakatzean, alarmak joko dio poliziar zure geolokaliza-zioarekin, eta, beraz, berehala bidaliko dute patruila zuregana, lehentasun osoko eraso-salaketa bat delako. Horrez gain, eraso bat ikusten baduzu, aplikazioa oso lagungarria da, hori salatu eta zerbait egin ahal izateko.

Aplikazioa ez da tresna isolatu bat. Eraso matxisten kontrako herritarren itunaren parte bat da. Izan ere, itun hori eta beste neurri batzuk jarri dira abian Durangon, kontzientzia pizte-ko, eta herritarrek inplikatzeko eraso eta jarrera sexisten au-rrean. Neska gazteei gonbit egin nahi diet, aplikazio hau deskar-ga dezaten, gainean ditugun San Fausto jaietan segurtasun gehiagoz gozatu ahal izateko.

Durungaldea asteen

Irigorasen esanetan, Vueltarako dirua ez zen poliziaren stand zegoen parkerako

Durango I Polizia Nazionalak Ezkurdin stand bat jarri eta gero, Oposizioak Vueltarako dirua zertarako inbertitu zen galdetu zion alkateari. Irigorasen esanetan, 23.450 euro ipini zituen udalak, baina Landako Guneako prentsa instalazioetan, ez poliziak stand ipini zuen parke hartarako. Bestalde, MTVko jaialdiaren harira, "gaurkoz" udalak 3.000 euro ipini dituela esan zuen, Landako Gunea erabiltzeko alokairua bere kargu hartu duelako.

Presoen dispartzioagaz desadostasuna erakutsi du Durangoko Udalak

Durango I Sare plataformak dispartzioaren aurkako mozio bat aurkeztu zuen martitzeneko osoko bilkuran. ETaren amaieraren ostean, "sufirimendua sortzen jarraitzen duen auzia" dela esan zuen Sarek. Lehen graduan eta gaixorik dauden presoen egoera ere salatu zuen, eta "Espetxe politika berri bat" behar dela. EAJk, EH Bilduk, Herriaren Eskubideak eta PSE-EEk bat egin zuten.

Ertzaintzak 1.000 marihuana landare konfiskatu ditu Astolako baserri batean

Abadiño I Eguazten goizean, Abadiñoako Astola auzoko baserri batean mila marihuana landare konfiskatu zituen Ertzaintzak. Ba-serri zahar bat marihuana plantazio moduan erabiltzen ari zirela azaldu du Ertzaintzak. Ustiapenaren jabea 55 urteko gizonezkoa da eta atxilotu egin zuten, osasun publikoaren kontrako delitu bat egotzita. Era berean, plantazioan lanean zebilen beste gizon bat ikertzen ari dira.



Frontoiko itoginak konpontzeko, proiektua egingo duela dio Durangoko Udalak

Durango I Durangoko pilota eskolako gurasoek frontoiko ito-ginengatik kexa adierazi ostean, azpiegitura konpontzeko dituen aurreikuspenen berri eman du udalak. "Konpondu gura dugun eraikin erreferente bat da frontoia, udalak eta elkarteek erabili ahal izateko", dio Durango Kirolakek. Eguntan itoginak behin-behinean konponduko dituztela aurreratu dute. Udalak dioenez, maiatzean eta uztaillean teilatuaren azterketa egin dute, kalteak eta segurtasuna baloratzeko. Orain, irailetik azarora teilatua konpontzeko proiektua egin gura du udalak. Egitasmo horretan, aurrekontua, exekuzio epea eta obren esleipena zehaztuko dituzte.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

TXIRULA MUSIK

TXIRULA MUSIK
P.O. Box 10, 48215 - IURRETA



Pentsiodunak martxan

MANIFESTAZIOA
DURANGALDEA : Urriak 1

Durangaldeko pentsiodunak Bilboko mobilizazioetan

Adineko pertsonen nazioarteko egunean, urriaren 1ean, Bilbon egingo duten manifestazioan parte hartuko dute astelehenero

batzen diren Durangaldeko pentsiodunek. Bilboko San Nikolas auzoan batuko dira Durango, Iurreta, Berriz, Zornotza, Elorrio eta



'Etena' antzezlanaren Arrapaladan antzerki taldearen eskutik

ANTZERKIA | Arrapaladan antzerki taldeak *Etena* antzezlanaren aurkeztuko du gaur, hilak 28, Arriola Antzokian. Bazkideek 3,5 euro oraindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, 5 euro.

Rodrigo Garciak gidatzen du, Sonia Villamorrek zuzendua eta Karmele Ganboak, Maite Garciak, Blanki Gomezek eta Maritzi Basetak antzeztutako antzezlanaren 20:30ean hasiko da. 16 urtetik

gorako pertsonentzat izango da. Arrapaladan taldeko kideek minaren inguruko hausnarketa egingo dute Arriola Antzokian. Antzezlanean, mina puntu beltz txiki batean sortzen dela ikusten da. Sabelaren erdialdea hartu, eta handituz joango da mina. Besoetara zabaldu, zure burmuinaren bidea egin, eta ikasitako hitzek ez dute irtenbiderik topatuko.

Irailaren 28an

IURRETA jaiak
'San Migel jaiak'.
Montoitik txapligoak, 12:00etan; **Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa**, 12:05ean; **herriko nagusien bazkaria**, 14:00etan; **gazte bazkaria plazan**, 14:30etan; **Ohiturazko Doniel Atxa jasotzea; ostean, dantzarien azken entsegua**, 18:00etan; **Go!azen karaokea**, 20:30etan Askondon; **Laiotz taldearen erromeria**, 22:00etan, plazan.

BERRIZ jaiak
'Mikel Deunaren jaiak'.
Doniel Atxa jartzea; ostean, odoloste jana eta bolo txapelketa, 19:00etan.

ZALDIBAR deialdia
Talo afaria
(barazkijaleentzako aukera ere egongo da), 20:00etan, gaztetxean.

ZALDIBAR antzerkia
Elkartasunezko bakarrizketa, Yoni Prohibidogaz eta Gotzon Arrienegaz, 22:00etan, frontoian.

Irailaren 29an

IURRETA jaiak
'San Migel jaiak'.
Futbol festa, 10:00etan, Askondon; **dantzari eta agintarien kalejira**, 10:30etan; **meza nagusia**, 11:00etan; **dantzariak**, 11:45etan; **igel txapelketa**, 12:30etan; **Dantzari Dantza, neskek egindako soka dantza**, 19:00etan; **ABBA Revival**, 20:30etan, Askondon; **Azalera, The Vartools, Oxabi eta Maskaradun Dj**, 21:00etan, plazan.



Zaldibarko pentsiodunak, 11:30ean. Handik, Moyua plazara joango dira.

Gutxieneko pentsioa 1.080 euroan ezartzeko eta "zahartzaro duin bat" bizi ahal izateko politikak eskatuko dituzte beste behin ere pentsiodunek.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Duo Imperial taldearen kontzertua Kulotxako jaietan

JAIK | Hirugarren urtez Kulotxako jaiak ospatuko dituzte zapatuan Elorrion. Goizean puzgarriak, aurpegi margotzea, jolasak eta eskulanak egongo dira; baita artisautza azoka ere. Eguerdian, bazkari herrikoia egongo da eta, ostean, postre lehiaketa.

Arratsaldean, berriz, puzgarriak eta jolasak egongo dira, eta baita disko festa ere umeentzat. Duo Imperial taldearen kontzertuak emango die amaiera Kulotxako jaiak.



ZALDIBAR deialdia
‘Haur minbiziaren aurkako elkartasun maratonia’. Haurrentzako jolasak, 10:30etan; haurrentzako joko tradizionalak, 11:00etan; defentsa pertsonal erakusketa, 11:00etan; Muay Thai erakusketa, 12:00etan; **Cantores del Lapacho taldearen kontzertua**, 13:00etan; **poni eta zaldietan ibilaldia**, 13:00etan; **spinning maratonia**, 16:00-19:00 bitartean; **txokolatada**, 17:00etan; **emakumezkoen saskibaloia: Zaldibar - Tabirako**, 17:00etan; **kale antzerkia: Amparito Show**, 18:00etan; **Guardia Vieja, Etabar, Sonora Kilombo, Sugoi eta DJ Lurren kontzertua**, 19:00etan, frontoian.

BERRIZ jaiak
‘Mikel Deunaren jaiak’. Meza eta euskal dantzak Iremiñe taldeagaz, 12:00etan; ume jolasak, 17:00etan; **txirindulari lasterketa herrikoia**, 18:00etan; **Gari-ren kontzertua**, 20:00etan.

ZORNOTZA musika
‘Ken Zazpi Ahotsez’ kontzertua, 20:00etan, Zelaieta frontoian.

ELORRIO jaiak
‘Kulotxa jaialdia 2018’. Puzgarriak, jolasak, artisautza azoka, 11:00etan; **bazkari herrikoia**, 14:00etan; **puzgarriak eta jolasak**, 16:30etan; **txokolatada**, 17:30etan; **Larima disko txiki festa**, 18:30etan; **afaria**, 20:30etan; **Duo Imperial musika taldea**, 21:00etan.

Irailaren 30ean
IURRETA jaiak
‘San Migel jaiak’. Umeen parkea eta puzgarriak, 12:00etan, plazan; **oilasko gastronomia txapelketa**, 12:30etan; **umeen parkea eta puzgarriak**, 16:00etan, plazan.

BERRIZ jaiak
‘Mikel Deunaren jaiak’. XXIV. Ibilaldia Berrizko Baselizetatik, goizean; **meza eta euskal dantzak Iremiñe taldeagaz**, 12:00etan; **bertsolariak: Oihana Bartra, Iruri Altzerreka eta Miren Amuriza**.

Urriaren 4an
IURRETA jaiak
‘San Migel jaiak’. Binbo tonbola, 18:00etan; Askondon, **musikagaz jolasean**, 19:00etan, plazan.

Urriaren 5ean
IURRETA jaiak
‘San Migel jaiak’. Tortilla txapelketa, 19:00etan, plazan; **Puro Relajoren kontzertua**, 22:30etan, Askondon; **rock kontzertuak: Moonshiners, Kaotiko, Koban eta Dj Bull**, 22:00etan, plazan.

Urriaren 5era arte
BERRIZ deialdia
Txistu, salsa eta zeramika ikastaroetara apuntatzeko aukera, kultura@berriz.eus helbidera idatzi, edo 946827860 telefonora deitu.

Urriaren 19ra arte
BERRIZ deialdia
Erretzeari uzteko bi ikastarotara apuntatzeko aukera, *prevencion*. mdurango@bizkaia.org helbidera idatzi edo 946200520 telefono zenbakira deitu.



OREINA
Durangon eta Elorrion

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

- Un Pequeño Favor**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 20:00/22:30
domeka 30: 19:00/21:30
astelehena 1: 18:30/21:00
martitzena 2: 20:00
eguaztena 3: 20:00
- Oreina**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 18:30/20:00/22:30
domeka 30: 17:00/19:00/21:30
astelehena 1: 18:30/21:00
martitzena 2: 20:00
eguaztena 3: 20:00
- Milla 22**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 20:00/22:30
domeka 30: 19:00/21:30
astelehena 1: 18:30/21:00
martitzena 2: 20:00
eguaztena 3: 20:00
- Ana y Bruno**
zapatua 29: 18:00
domeka 30: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

- Oreina**
zapatua 29: 22:00
astelehena 1: 20:00
- Leo Da Vinci: Monna Lisa Misioa (euskaraz)**
domeka 30: 17:00/20:00

:: Zornotza ARETOA

- Oreina**
barikua 28: 20:15
zapatua 29: 19:30/22:00
domeka 30: 20:00
astelehena 1: 20:15
- Vaya Bichos**
zapatua 29: 17:00
domeka 30: 17:00

“Estilo ezberdinetako energia kapsula batean sartu dut; hori entzutean eragiten duen eztanda da 'Supernova' ”

'Supernova' azken lana modu berezian aurkeztuko du Etxek; urriaren 6an kontzertua eskainiko du, Plateruenean, The Van talde berriztarragaz batera



GAIZKA PEÑAFIEL

Iñaki Etxezarraga
Maiztegi 'Etxe'

Musikaria
Berriz | 1984

proiektua modu estandarizatuan eraman gura izan. Ez da egongo aurkezpen birarik, adibidez. Aurkezpen kontzertu berezi bat izango da. Energia guztia kontzertu horretara bideratu gura izan dugu. Aurrerago kontzertu gehiago joko ditugu, noski, baina hau berezia izatea gura genuen.

Rosario Floresen 'Qué Bonito' euskaratu duzu. Nolatan?

Bere istorioa du. Nik denetariko musika entzun dut beti. Besteak beste, Serrat, Sabina, Madonna eta Manowar ikusi ditut zuzenean. Niretzat artista oso berezia izan da Rosario, eta nire anaiari ere asko gustatzen zitzaion; erosi nion azken diskoa Rosariorena izan zen, Bilbon ikusi genuenean. Orduan, anaia galdu nuenean, konexio moduko bat igarri nuen. Gitarra jotzen hasi, eta abestiak euskaraz metrika berdina zuela ikusi nuen. Letra itzuli, Jagobari erakutsi, eta harrituta geratu zen. Zenbait aldaketa egin genizkion gero. Hori bai, baimena lortzea odisea bat izan zen. Portugalen Rosariogaz elkartzeko aukera izan genuen, eta abestiari eta bion anaiei buruz egin genuen berba. Kantua berezia da, eta berezitasun bat gehiago da diskorako.

Platerueneko aurkezpena berezia izango da.

Alde batetik, The Van berriztarrekin arituko gara, oso interesgarriak iruditu zaizkit eta. Gaztetatik dabil-tza honetan, eta duten estiloa oso berezia iruditu zait. Publiko guztientzat da atsegina, gainera. Bestalde, kontzertuaren ordua aurreratu egin dugu, eta publikoak eskertuko duela uste dugu. *Supernova* osorik joko dugu, eta disko guztietako kantuak ere joko ditugu.

Iban Gurrutxaga, Xabier Barrenetxea eta Iban Larreboure izango ditut alboan. Boston Jai eta Triki-zio taldeetan ere aritu naiz beraiekin, dozenaka kontzertu jo ditugu elkarrekin eta *feeling* ona dugu. Hasi-erako ilusioa berreskuratu dut beraiekin, beste ikuspuntu bategaz: musika eginez gozatzea eta uneko adrenalina askatzea bilatzen dut orain. Errepertorio polita egongo da, eta soinu eta argi teknikariekin ere zerbait polita irtengo da.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bizitza erdi musikari lotuta egon ostean, amestutako diskoa kaleratu gura izan du Etxek. Esperientzieta-tik bildutako energia guztien batura da 'Supernova'.

Zer da 'Supernova'?

Azken urte bietan egon naiz lan hau konposatzen. Orain arte beti amestu dudako diskoa egin gura nuen eta energia handia eskaini diot diskoari. Estilo ezberdinetako energia kapsula batean sartu, eta diskoa entzuterakoan kapsula horrek eztanda egiten du. Hortik dator kontzeptua. Barneko tentsio bat askatu gura nuen. Estilo ezberdina izan arren, abestiek oso ondo enkatatzen dutela uste dut, gainera. **TAOMeko Jagoba Ormaetxeagaz egin duzu lan. Argi zenuen beragaz lan egin gura zenuela?**

Aurretik ezagutzen nuen Jagoba, baina ekoizle bategaz lan egin du-dan lehenbiziko aldia da hau. Urte asko daramatza beharrean, eta,

besteak beste, estatuko Bustamante eta Bisbal artistekin lan egin-dakoa da. Lehenbizi neuk grabatu nituen maketak. Nik baxua, bateria gitarrak eta ahotsa sartuta, eta berak moldatu ostean, bere estudio-ra sartu ginen, grabatzeko asmoz.

'Arma, Tiro, Pum!' euskal rockari gorazarrea da?

Kantu hau sortu nuenean, formatu akustikoan, publiko helduago batentzat nentzen, eta gogoeta moduko bat egin nuen. Azken urteetan, euskal musikaren inguruko

mugimendua galdu egin dela uste dut, eta hori nabaria da kontzertuetan. Egunerokotasunean euskal taldeak ez dira asko nabarmentzen, komunikabide handietan ez dago tokirik beraientzat, eta tabernetan ez dago joera euskal musika jartzeko. Talde batzuek ondo funtzionatzen dute, baina horrek ez du talde txikientzat balio. Euskal rockari buruzko mezu bat zabaldu gura nien gazteei. Euskaraz abesten duten taldeak omendu gura nituen, ni musikaria banaiz, eurei esker delako. Estilo guztietako musika entzun izan dut beti, baina gaur egungo gazteek ez dituzte hainbeste euskal talde ezagutzen. Su Ta Gar eta Berri Txarrak gaur egun zer diren ulertzeko, Niko Etxart edo Zarama nortzuk ziren jakin behar da. Azkenean, nor garen jakiteko, nondik gatozen jakin behar dugu, eta hori gakoa izan da luzaroan euskal kulturaren. Egundak, talde interesgarri asko daude, estilo ezberdinetara euskara eramaten

ari direnak. Glaukoma edo Anita Parker, esate abaterako. Euskarazko musika kontsumitu behar da, eta talde berri horiek estilo berriak egitera arriskatzen ari dira.

Nekatu egin zarela ere abesten duzu. Horrela da?

Hasiberritan helburu batzuk jartzen dizkiozu zeure buruari. Nik kolpe asko jaso ditut; oraingo honetan, baina, inongo presiorik barik egin dut lan, guztia neure erara egin dut. Autoekoizpenaren bideagaz jarraitu dut, eta ez dut

“

Su Ta Gar edo Berri Txarrak gaur egun zer diren ulertzeko, Niko Etxart edo Zarama nor ziren jakin behar da”

—

“

Odisea bat izan zen 'Zein Ederra'-ren baimena lortzea, baina, azkenean, Rosariogaz egotea ere lortu nuen”

—

Gariren kontzertuagaz emango diote hasiera Berrizen Kultur Etxeko udazkeneko egitarauari

Gari musikari ezagunak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Mikel Deunaren baselizan, 20:00etan; musika, dantza eta antzerkia kontuan hartuta, hamabost ekitalditik gora eskainiko dituzte Berrizko Kultur Etxean irailetik abendura



Gari.

PROGRAMAZIOA • A.M.

Irailako kale antzerki emanaldien ostean, musikagaz jarraituko du Berrizko Kultur Etxearen eskaintza oparoak. Horrela, Gari musikari ezagunak kontzertua eskainiko

du bihar, zapatua, Mikel Deunaren baselizan. Baxenabarreko Bilau laukote folkzaleak emanaldia eskainiko du urriaren 6an. Honen kasuan, San Fausto baselizan izango da emanaldia. Hortik au-

rrerako jarduerak Kultur Etxean izango dira. Abendura arte, ia as-tero egongo da antzerki eskaintza. Besteak beste, Marie de Jonghen *Izar*, Cronopiaren *Node Akziona*, Histrion Teatroyen *Lorca La Corres-*

pondencia Personal, eta Benetan Beren *Inondik Inora* lanak ikusteko aukera egongo da. Horrez gainera, Ander Lipusek zuzenduriko *Zazpi Senideko* antzezlan eskainiko dute urriaren 27an. Berriztarra pozik agertu da obra berria jaioterrian eskaintzeko aukeragaz. Bestalde, Logele elorriarrek *Nagare* obra eskainiko dute abenduaren 5ean. Dantza ikuskizun hau Zaragozako Circle of Trust konpainiagaz egin-dako laugarren elkarlana da.

Nieves Mendez berriztarra

Mendez berriztarra bakarrizketa formatuko antzezlan batez gatzatzen da. Emakume batek jasaten duen indarkeriari buruzko istorioa kontatuko du. Azaroaren 22an izango da emanaldi hau.

Dantza ikuskizun berezia ikusteko aukera ere egongo da. Jordi Vilasecaren eta Aritz Lopezek zuzenduriko *Baserria* ikuskizuna abenduan ikusi ahaliko da. Breakdance eta dantza garaikidea uztartzen ditu ikuskizun honek.

ZORNOTZA • A.M.

Asteburuan *Ken Zazpi* Ahotsez ikuskizuna eskainiko dute Zornotzako Zelaieta frontoian. Ekimeneko antolatzaileen arabera, euskal popak eman duen talderik ezagunenetako bat omentzea du helburu ekimenak.

Ken Zazpi Ahotsez ikuskizunean 400 ahotsetik gora batuko dira Zornotzan. Bizkaia osotik etorritako lagunek egun honetarako bereziki prestatu diren bertsioak abestuko dituzte; Bilboko, Zamudioko, Markinako eta Zornotzako abesbatzetako jendeak parte hartuko du, besteak beste. Hainbat diziplina jorratuko dituzte emanaldian, eta musika korala, musika sinfonikoa, antzerkia eta poesia elkartuko dituzte ikuskizun bakar honetarako.

Ken Zazpiren bertsioak 400 ahotsetara entzuteko aukera dago Zornotzan

Zapatuan izango da kontzertua, irailak 29, 20:00etan, Zelaieta frontoian

Ahotsez gainera, Celia Baños, Piccolo String eta Biarte dantza eskolako kideek parte hartuko dute Zornotzako emanaldian.

Ikuskizun solidarioa

Kontzertua Ongi Etorri Errefuxiatuak! plataformaren alde antolatu dute BAEk (Bizkaiko Abesbatzen Elkartea) eta Zornotzako Udalak. Sarrerak leihatilan bertan eta BAEren lokalean erosi ahaliko dira, 10 euroren trukean.



Berariaz prestatu dituzte Ken Zazpiren bertsioak kontzertu honetarako.

Geure Durangaldea

Libe Mimenza
Castillo
Kazetaria



Super Like

Mugikorra da maitale garaikidea. Pozera eta minera lotzen gaituen espora. Argi bat pizten da gailuan eta zain duzu inoiz ezagutu ez duzun norbaiten mezua. «Elkarri eskua sartzeko geratu nahi?». Kosifikazio taktila. Jazarpen digitala. Maitasun tinderizatuaren albo-kalteak.

Argazki batzuen arabera erabakitzen dugu segundo gutxian bai ala ez. Sekula ez da norbait errefusatzeko horren erraza izan; hala ere, onarpena bilatzen dugu mekanika adiktiboan: hatza mugitzea da paradisura sartzeko giltza.

Bila ari gara guztiok. Sexu buffet libre bat, beste aldean zain izango dugun solaskide birtual bat, sexu iraultza pertsonal edo kolektiborako pasarte berri bat, bihotz apurtuentzako tiritat bat, (berriz bihotza apurtzeko arriskua dakarren) bidelagun bat... lotura bat finean.

Hurreratzeko sortutako tresnak inoiz baino urrunago gaitu lotzen. Pantailen lubakietan bizi gara, bakarleku izoztuetan.

Uso paseari begira, egokiena aukeratu ote dugun galdetzen diogu geure buruari, hautatzea ilusio bat baino ez dela jakitun, adimen artifizialen irriken algoritmozko maitasun prefabrikatua erosteko prest.

Estimua, adiskidetasuna eta konplizitatea garestiegiak dira jabetzearen egingo dugu Tinder enpatxuz oka. Azalekoak azala gozatzeari uztean, orduan. Gutxiagi hitz egiten dugu, gutxiago publikoki, bizi dugun match-en iraultza soziologikoki liluragarriaz. Ausardia beharko dugu harremanen logika kapitalista zailantzan jarri eta ur sakonetan sartzeko, bakardadea berrasmatzeko.

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Urriak 6 - 20:00etan
ETXE+ THE VAN

Kontzertua

REZAGADOS

Cia rezagados

Urriak 6, zapatua
20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEa
DURANGOKO UBAILA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

Durangaldeko zazpi bertsolari lehiatuko dira, udazkenean, Bizkaiko txapela janzteko

Udazken faseko kanporaketa bat Zornotzan izango da; finalaurrekoetako bat, Berrizen

BERTSOLARITZA • A.M.

Udaberriko sailkatze fasearen ostean, urriaren 6an ekingo diote berriro Bizkaiko Bertsolari Txapelketari. Udazkeneko fasean, 38 bizkaitar arituko dira kantuan, eta horietako zortzi helduko dira abenduaren 15ean Bilboko Miribilla jokatu den finalera. Durangaldeko zazpi bertsolari lehiatuko dira txapel preziatua janzteko. Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek, Txaber Altubek, Aitor Bizkarrak, Gorka Pa-

gonabarragak eta Garikoitz Sarriugartek kanporaketen fasean kantatuko dute. Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea, ostera, finalaurrekoen fasean sartuko dira lehian, 2016ko edizioan finalera sailkatu zirelako.

2018ko edizioan aurrekoaren formatuari eutsi diote. Hau da, fase bitan banatu dute txapelketa. Guztira, 78 bertsolarik kantatuko dute, horietako 23k lehenbizikoz txapelketan. Abenduaren finalera, finalaurreko hiru saioetako irabazleak eta

punturik gehien bildu dituzten bost bertsolariak sailkatuko dira.

Bizkaiko arnasgune

Asier Ibaibarriaga Bizkaiko Bertsale Elkarteko presidentearen esanetan, urte birik behin egiten den txapelketa lurraldeko bertsolaritza "azaleratzeko" aukera da. "Bizkaiko bertsosaleentzat arnasgunea da txapelketa. Eta lurraldeko bertsolarientzat euren lana eta bertsokera erakusteko plaza", adierazi du.



Txapelketan parte hartuko duten bertsolarietako batzuk.

Osasun gida

anboto

Naturopatia
PSE: 49/18

NAROA
Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea
Drenatze linfatikoa.
Osteopatia.
Tratamendu naturalak
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behe. Durango
675 706 599
www.naroba.net

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 163/18

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alteraziodermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



MINTZATALDEAK - GURASOLAGUN - IKASTAROAK ETA TAILERRAK - TXANGOAK - MINTZODROMOAK

DURANGALDEKO Berbalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo, euskalduna izanda, euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

Mintzataldeak. 5-6 lagunekoko taldeetan biltzen gara euskaraz egiteko, disponibilitate, adin eta zaletasunen arabera.

Gurasolagun. Familientzako mintzataldeak dira; jolasak, txangoak eta tailerrak egiten ditugu, helduak eta haurak batera.

Ekintza osagarriak antolatzen ditugu, besteak beste; txangoak, tailerrak, mintzodromoak... Euskaraz egin eta lagun berriak ezagutuko dituzu.

eta guztia DOHAINIK

Zatoz gurekin!

639 400 786

www.durangaldea.blogspot.com

durangaldea@aeke.eus

Durangaldeko Berbalagunak | Facebook





Endika Zarrabeitia Salterain
Goiherri sokatira taldeko sokatiralaria
Abadiño | 1984

“Erandioko Goierrin sokatira erlijio bat da; modu berezian bizi dute eta horren parte izatea gauza handia da”

Hegoafrikan jokatu den lur gaineko munduko txapelketan aritu da Endika Zarrabeitia, Erandioko Goiherri Sokatira Taldeagaz. Onenekin aritzeak ikasteko balio izan dio, eta esperientzia ederra izan dela azaldu du

SOKATIRA • JOSEBA DERTEANO

Abadiñar bat Erandioko taldean. Han bizi zen sasoian batu zen Goiherri. Orain Abadiñon bizi da, baina bere bihotz zati batek Erandioko Goiherri auzoan erroldaturik jarraituko ei du betirako. Munduko txapelketetatik itzuli berri da eta hango esperientzia kontatu du, baina sokatiraren egoeraz ere aritu da. Diskurtsodun mutila da, patxadaz eta ahobizarrik barik mintzo dena.

Pisu bitan lehiatu zinen. Zelan joan ziren tiraldiak?

Mistoetan eta 640 kilora artekoan parte hartu nuen. Nahiko talde berria joan ginen. Neure antzera, taldeko askok gehienez urte bi daramatxate soka. Sustoa emateko ilusioagaz, baina hankak lurrean

genituela joan ginen. Lehenengo eguneko goizean hotz handia egiten zuen. Horrek eragina izan zuen gudan, baina gure gabeziarik handiena esperientzia falta izan zela esango nuke. Han ez dago bromarik. Oso prestatuta daude denak, baita mistoetakoak ere. Euskal Herrian, oster, ez dago tradizio hori. Talde mistoa egun batzuk lehenago prestatzen da. 640 kilokoan, berriz,

“

Lur gainean gauza bat argi izan behar duzu: topetik ateratzen bazaituzte, galdu egin duzu tiraldia”

—

bigarren taldeagaz aritu nintzen. Hiru eskoziarrek gugaz tiratu zuten. Aurkari gogorrek egokitu zitzaizkigun: Suitza, Herbehereak... Baina, tira, azkenean horien kontra lehiatu beharra dago, sokatiran mailarik handiena duten taldeak direlako, Euskal Herrikoekin batera. Tiraldi batzuk irabazi eta beste batzuk galdu egin genituen, baina esperientzia ederra izan zen. **Zugaz batera, Durangaldean bizi diren tiralari bi dabilta Goiherri. Bata zilarrezko dominagaz itzuli den Iraitx Arrien Urza gernikarra.**

Meritu handiko bigarren postua lortu zuten 560koan. Finalerdietan Laukizko Gaztedi taldea kanporatu zuten. Euskal Herriko probetan Gaztedi aurretik ibili izan da. Bagenekien abuztuan egin genituen entrenamenduak oso onak izan zirela, eta hobetu genuela. Bederatzi minutuko tiraldiak izan ziren, bada zerbait. Jende askok dioenez, txapelketako ikusgarrienak eta politenak izan ziren. Finala alemaniarrez eta suitzarrez osatutako talde baten kontra galdu zuten.

Bestea neska-laguna duzu, Itsaso Marin Muñoz algortarra.

Gauza handi bat lortu dute. 20 urte ziren Goiherri nesketa talderik ez zuela, eta zortzi neska elkartzea eta taldea berreskuratzea lortu dute. Nik argi dut hori. Talde berri bat sortzeak beste batzuen sorrera ekarri dezake, eta hori garrantzitsua izan daiteke hurrengo munduko txapelketara begira. Ez dugu ahaz-

tu behar Euskal Herrian izango dela 2020ko munduko sokatira txapelketa.

Goma gainean eta lur gainean, bietan tiratu duzu. Zeintzuk dira bataren eta bestearen arteko alde nagusiak?

Oso ezberdinak dira, teknikoki zein fisikoki. Goma gainekoa estatikoagoa da, potentzia ariketa bat. Lur gainekoa oso mugitua da. Alboz tiratzen da. Ezkerreko hanka da eusten duena eta eskumakoa beti adi, edozein mugimendutarako.

Orpoa lurrean ondo sartzeak garrantzitsua ematen du. Mezu bat bidaltzen da: "Atera gaitzazu hemendik ahal baduzu".

Edo honako mezu hau: "Kontuz, ze tokitik aterako zaitut hurrengo tirakadan". Tiraldian zehar topeak sortzen dira. Gauza bat argi izan behar duzu: topetik ateratzen bazaituzte, galdutzat eman dezakezu tiraldia. Hori da lur gaineko sokatiraren gakorik nagusienetakoa. Burutsu jokatu behar den kirola da. **Txirindularia izana zara. Zeozelan lagundu dizu sokatirarako?**

Sokatirak eta bizikletak antzekotasunik badute, honakoa da: besteak baino gehiago sufritzeko kapaz izan behar duzu. Bizikletan izan nuen pekaturik handiena da ez nuela lortzen azken arnas puntua ematea. Baina ikasi egiten da. Bizikletan zeu zara, baina sokatiran beste zazpi kide dabilta zugaz batera. Dena eman beharra dago. Batzuetan besteak animatzen zaituz-

te, besteetan zeuri egokitzen zaizu laguna animatzea. Taldea gara.

Zelan batu zinen Erandioko Goiherri taldera?

Kuriosoa da. Neska-laguna eta biok Erandion bizi izan ginen bolada batean. Erandioko Goiherri auzoan, Bizkaiko sokatiraren sorterrian, esan genezake. Sokatira eskola etxetik 100 metrora nuen, baina ez nintzen eurekin batzera ausartzen. Abadiño Sokatira Taldean ibilia nintzen, baina espezialitate desberdinak dira eta ez nekien moldatzeko kapaz izango nintzen. Harik eta han zebilen lagun batek proposatu zidan arte. Orain Goiherri auzoa nire bihotzeko parte dut. Harro diot gainera. Sokatira modu berezian bizi dute. Sokatira erlijio bat da han. Horren parte izatea gauza handia da.

Zelan lantzen dute harrobia?

2020ko munduko txapelketari begira apustu bat egin dute. 15 urteko gazte batzuk hasi dira.

Akaso horixe da Abadiño Sokatira Taldean orain falta dena?

Alde batetik, futbolak eta beste kirol batzuek asko kentzen dute. Baina, beharbada, ez dugu lortu atzetik erreleboa etortzea. Orain neu naiz taldeko abadiñarrik gazteena. Atxondoko gazte bat ere badabil. Ezagutara ematea falta zaigu. Baina ez da Abadiño kontua bakarrik, arazo orokorra da. Gaur egungo errealitatearen erradiografia da.

“

2020ko munduko txapelketa epe luzerako apustu bat izatea espero dut. Abagune bat da”

—


Sokatiraren inguruan lanketa handi bat egin beharra dago. Badakit 2020ko munduko txapelketara begira planak daudela. Epe luzera begirako apustua izatea espero dut, eta ez bakarrik aldi baterakoa. Horrela bada, txikitik gauza handiak lortu ditzakegu, arraunketaz eta pilotagaz gertatu zen moduan. Munduko txapelketan 2.000 pertsona inguru etorriko dira. Abagune bat dugu, ez sokatiran bakarrik, baita nazio moduan ere.

2020ko txapelketa hori lanean jarraitzeko motibazioa da zuretzat?

Jakina, data garrantzitsua da. Ez niretzat bakarrik. Nire taldean badago jende bat 20 urte daramatzana soka, lesio inportanteak izan dituen eta medikuak "argi ibili" esan diona. Baina denek diote: "2020ra arte, aurrera!". Herri bat, nazio bat mundura begira eta maite duzun kirola egiten.

Bazabiltza Abadiño Sokatira Taldean?

Banabil eta jarraitu gura dut, baina ez dakit zer egingo dudana. Familia, ikasketak, lana, lesioak... azkenean horiek denek neure tokian jarriko naute.



Mendi bizikleta martxan Bizkargi alderantz joango dira.



Aramotz inguruko txoko berezietatik igaro gura dute mendi lasterketan.

Zornotzako mendi bizikleta martxak ibilbide berria estreinatuko du domeka honetan

34 kilometroko ibilbidea antolatu du Zornotza mendi taldeak eta Bizkargi ingurutik igaroko da; egun bererako, Aramotz mendi lasterketa ere antolatu du (30 kilometro)

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako mendi bizikleta martxako zein Aramotz mendi lasterketako ibilbideetan nobedadeak daude. Martxako ibilbidea erabat aldatu, eta lasterketako luzatu egin dute. Bata zein bestea domeka honetan izango dira.

Mendi bizikleta martxa 09:00etan abiatuko da, Zubiondo

plazatik. Ibilbideko 34 kilometroek —1.100 metroko desnibel positiboa— ez dute zerikusirik iazkoekin. Parte-hartzaileak Bizkargi-rantz joango dira, Morga eta eta Gorozika ingurura, eta Torreburutik itzuliko dira. "Iazkoa baino askoz ere politagoa da. Mendi bizikletarako ibilbide naturala da eta bide egokiak daude", azaldu du Zornotza

Mendi Taldeko Igor Lopezek. Iaz, MTB martxak Andres Espinosaren oroimenezkoagaz bat egin zuen, eta, hori dela-eta, beste ibilbide bat prestatu behar izan zuten.

Aramotz mendi lasterketa 08:30ean hasiko da, Zubiondo plazan. Iaz baino luzeagoa —30 km— eta gogorragoa —2.000 metroko desnibela— izango da. 2011tik

antolatu gabeko lasterketa berreskuratu egin zuten iaz, eta logistika aldetik errazagoa zen ibilbidea diseinatu zuten. "Antolaketari neurria hartzen ibili ginen", gogoratu du Lopezek. Aurten, esperientzia gehiagogaz, "saltsa handiagoetan" sartzera ausartu dira. "Aramotz ingurua ederra da eta bertako txoririk gehienak erakutsi gura ditugu", adierazi du Lopezek.

Ibilbide bata zein bestea finkoak izango dira aurrerantz. "Printzipioz, horrela mantenduko dira".

Emanaldiak

Askotariko emanaldiek osatuko dute mendi astea. Urriaren 3an, 19:30ean, Bilbao Mendi Film Jaialdiko lehiaketan parte hartu zuten alerik onenak ikusteko aukera egongo da Zornotza Aretoan. *Song for the Nomad*, *The Frozen Road* eta *Psycho Vertical* dokumentalek osatuko dute menua. Hurrengo egunean, toki eta ordu berean, Skimetraje jaialdira aurkeztutako elurretako kirolei buruzko film labur hatzuz erakutsiko dituzte.

Ekimen sorta mendi martxa bat egaz amaituko dute. Urriaren 7ko domekan abiatuko da, 09:00etan. Zubiondo plazatik. Ibilbideak 23 kilometro eta 850 metroko desnibel positiboa ditu.



Clase A Berria. Just like you.

Ikus ezazu Clase A berria, ahotsaren bidez gida dezakezun adimen artifizialeko sistema berritzailez hornitutako autoa, bere mailako bakarra. Horrez gain, badauka ukimen-pantaila multimedia. Eraman ezazu aseguru, bermea eta mantentze-lanak barne 2. Auto paregabea, zu bezalakoa.

Clase A 180 d 250€/ hilean¹, 48 kuotatan.

Sarrera: 10.020€. Premium paketeduna eta AMG linea opari.

Ziklo nahasian kontsumoa 6,0-6,1 (l/100km) eta CO₂ isurtzea 136-140 (g/km)³.

¹Finantziaketa-adibidea: Clase A 180 d 250€/hilean BEZ barne, sarrera 10.020€ BEZ barne, 48 kuotatan eta 80.000 Km. Baliozko eskaintza: 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat eta 2018/09/30era arte egindako eskaerak, 2018/10/15era arte onartutako eskaerak eta 2018/11/30era arte kontratua indarrean. Gutxieneko iraupena: 24 hilabete. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A. (Bruselas etorbidea 30, 28108 Alcobendas-Madril)-ek komertzializatutako marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzan agertutakoari². Piezen higadura barne, pneumatikoak ezik³. CO₂-ri dagozkion baloreak "NEDC CO₂" entsailaren prozeduraren arabera lortu dira. Hau (UE) 2017/1153 Aplikazio- araudian (2 artikuluan, 1 zenbakian) arautzen da eta (CE) 692/2008 Araudiaren XII. eranskinaren arabera kalkulatu da. Erregaiaren kontsumoa balore hauek kontuan hartuta lortu da. Europako gidatzearen zikloaren prozeduratan egondako araudiaren aldaketan ondorioz, une bakoitzan dagozkiaon entsegu-sistemak kontuan hartuko dira. Hori dela eta, ibilgailuaren adostasun-ziurtagiria ez ezik, fitxa teknikoan ere balore altuagoak ager daitezke. Balore hauek garrantzitsuak dira ibilgailua matrikulatzeko unean eta matrikulazio-zergan edota Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaietako Zergan ere eragina izan dezakete. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en



Aguinaga

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. www.aguinaga.mercedes-benz.es



Azkorbebeitia podiumean.

Azkorbebeitia eta Ajuria txapeldun kilometro bertikalean

MENDIA • J.D.

Oihana Azkorbebeitiak eta Aitor Ajuriak —gazte mailan— kilometro bertikalean Euskal Herriko Txapelketa irabazi dute. Berriain mendian (Uhartetako Arakil, Nafarroa) lehiatutako proban, Azkorbebeitiak probako errekorra hautsi zuen. Maria Zorroazaren aurreko marka 33 segundotan hobetu, eta 48.54an ezarri zuen berria. Ajuria onena izan zen gazteetan, eta bederratzigarren tokian amaitu zuen sailkapen nagusian.

Espainiako txapelketan lau domina irabazi dituzte Zuazubiskarrek eta Isasik

Zilarrezko domina bigaz itzuli da Isasi, eta zilarrezko eta brontzezko banagaz Zuazubiskar

PISTA • JOSEBA DERTEANO

Belodromoa Ziortza Isasiren eta Illart Zuazubiskarren bigarren etxea bihurtu da. Gustura sentitzen dira pistan, eta urtea joan eta urtea etorri dominak pilatzen ari dira hainbat txapelketatan. Espainiako txapelketan lortutakoak dira palmaresera batu dituzten azkenak: joan zen asteburuan bina dominagaz itzuli ziren Valentziatik.

Txirrindulari biak iraupen probetan nabarmendu ziren. Eustrak Euskadi taldeko Ziortza Isasik zilarrezko domina bi eskuratu zituen. Lehenengoa madison modalitatean heldu zen, Ana Usabiagagaz batera. Bigarren zilarra puntuaketa proban lortu zuen. Kasu horretan, Ana Usabiaga taldekidearentzat izan zen urrezko domina.

Euskadiko selekzioiko elastikoa jantzita, Zuazubiskar abadiñarrak zilarrezko domina irabazi zuen taldekako jazarpenean, eta brontzezkoa madisonen. Azken mo-

dalitate horretan Unai Iribarregaz batera aritu zen.

Espainiako txapelketan egindako lanagaz gustura daude eskualdeko txirrindulari biak.



Illart Zuazubiskar eta Ziortza Isasi, Valentzian.

Adituaren txokoa

Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia



Euskal Kopa 2018 Durangon

Bigarren urtez jarraian, gurekin dugu Euskal Kopa. Aukera bikaina gure saskibaloia ikusteko. Gure mailarik gorenengo saskibaloia, bai mutilena bai neskena.

Aurreko asteburuan, mutilen txapelketa izan zen. Delteco Gipuzkoa Basketek eta Retabet Bilbao Basketek jokatu zuten finala. Gipuzkoa Basket, maila goreneko taldea izanik (ACB mailan, Baskonia Supercopa jokatzeko ibili zelarrik), zuzenean zegoen sailkatuta finalera.

Bilbao Basketek Saenz Horeca Araberriren aurka jokatu zuen finalerdian. Partidu gogorra izan zen, borrokatua, urtean zehar elkarren artean urrezko LEB mailan borrokatuko diren bi talderen artekoa. Araberrik ia irabazita zeukan partidua, baina bilbotarrek erritmo biziagoa jarri zuten azkenean, eta partidua bereganatu zuten.

Gogotsu aurkeztuko ziren talde biak igande goizeko finalean. Hori ematen zuen behintzat. Baina Bilbao Basketek partidua jokatu zuen, defentsan gogor eta erasoan erritmo handiz, eta donostiarrek ez zuten inongo aukerarik izan bigarren zatitik aurrera. Bilbao Basket, oso ondo. Talde lanetik bideratutako garaipena.

Asteburuan saskibaloia gehiago Durangon. Nesken goi mailako taldeen txanda. Larunbatean, 09:45ean H. RPK Araski/Añares Rioja ISB, eta 12:00etan H. Lointek Gernika Bizkaia/IDK Gipuzkoa. Goi mailako partidua bi. Lointek Gernikaren eta IDK Gipuzkoaren artekoa izango da gogorrena. Ia Mario Lopezen Gernikak partidua lotzen duen eta igandeko finalean dauden! Eskerrik asko Tabirakori, Euskal Saskibaloia Federakundeari eta Durangoko Udalarari saskibaloia zaleon partetik!

Asteko kirolaria

“Nire helburu nagusia Perun jokatu den Munduko Txapelketara joatea da”

Euskadiko Kopan urrezko eta zilarrezko dominak irabazi ditu Kayak Surfean asteburuan

20 urteko kirol ibilbidean, Munduko Txapelketan zortzi domina eskuratuak da Txema Carreto durangarra. 56 urte dituen arren, oraindik sasoi onean dagoela eta maila gorenean lehiatzen jarraitu dezakeela erakutsi du asteburuan.

Sopelan jokatuak Euskadiko Kopan urrezko eta zilarrezko domina bana lortu duzu asteburuan.

Kayak Surfeko Euskadiko Kopako bigarren jardunaldia izan dugu eta oso ondo sentitu naiz. Master mailan urrezko domina lortu nuen, lehenengo jardunaldian bezala, eta Open mailan, berriz, espero ez nuen zilarrezko domina eskuratu nuen.

Ez zenuen uste Open mailan dominen borrokan arituko zinenik?

Ez. Euskal Herrian jende gazte oso ona dago, eta normalean maila honetan lehenengo hamarren artean ibiltzen naizen arren, ez nuen uste dominen borrokan ibiliko nintzenik. Baina, azkenean, finalera heltzea lortu eta zilarrezko domina lortu nuen, Munduko Txapeldun biren aurretik. Oraindik ere sinistu ezinda nago.

Gazteek baino eskarmentu gehiago duzu Kayak Surfean. Txapelketan aldeko izan duzula esan daiteke?

Argi dago beteranotasunak plus bat ematen duela. Hala ere, txapelketara inongo handinahirik barik joatea ezinbestekoa izan zela uste

dut. Nire asmoa olatuekin disfrutatzea eta lan txukun bat egitea zen, ez proba irabaztea. Gakoa hori egon zen, baita olatuen aukeraketa egokian ere.

Dominak irabazteaz gain, puntuak ere eskuratu dituzu datorren urtean Perun jokatu den Munduko Txapelketara Euskadiko selekzioagaz joateko.

Puntu horiek eskuratzea oso garrantzitsua da guretzat. Nire helburu nagusia Perun jokatu den Munduko Txapelketara joatea da, eta, horretarako, puntuak ezinbestekoak dira.

Iaz Munduko Txapeldun gelditu zineten taldeka. Perun titulua berrestea izango duzue helburu?



TXEMA CARRETO AMANTEGI

Durango, Kayak-Surf

Dudarrik barik. Euskadiko selekzioan kirolari oso onak daude, teknika handikoak, eta gure helburua horixe izango da. Hala ere, badakigu zaila izango dela, selekzio askok lupagaz begiratzen diete eta gure mugimendu eta teknikei.

Oraindik maila onean zauden arren, erretiroan pentsatzen hasi zara?

Goi mailako kirola ixtea pentsatu nuen iaz, baina emaitzek laguntzen didaten bitartean, jarraitzea erabaki nuen.

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN

Chimeneas

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

NIFA, S.L.

VIA LIDER

Pasión por su vehículo.

KAMIOIAK (José Antonio)
Tel.: 94 681 26 04

TURISMOAK (Roberto)
Tel.: 94 681 25 66

Mallabiena auzoa, 4
48215 - Iurreta
nifa@autoserviciosnifa.com

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

MECANOGRAFIAK
Harkaitz Cano
2018

UME ETA GAZTEENTZAT
MARTZELO ITSUA
Pello Añorga & Maite Mutuberria
2018

MUSIKA
ETXE
2018



AMBOTO
INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



Inmobiliaria
del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean **600€**-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO Eraikin berria. Logela bateko, biko, eta hiruko etxebizitzak salgai. **93.800.-€** hasita.

DURANGO Murueta Torre kalean. Pisu berri-berria, hiru logelakoa, komun bi, sukaldea eskegitokiagaz, egongela.Garaje eta trastelekua

DURANGO Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbarekin.

IURRETA Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.

DURANGO Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.

BERRIZ Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

DURANGO ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea eskitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO Bifamiliarra eraikitze baimenarekin. 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliari bat eraikitze baimenarekin, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO Aldape auzoa. Baserria berriztatze baimenarekin, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ Murgoitio auzoa. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.

MENDATA Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliari berriztatze baimenarekin. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze baimenarekin.

BERRIZ Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO 40 m2-tik gorako bulegoak, **350 €**-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagaitu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

//AUKERA
IURRETA 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Berogailua. **100.000€**

SAN FAUSTO 2 logela(lehen 3), bainugela, sukaldea, egongela-jangela. Berriztatua. **90.000 €**

AUKERA 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, ganbara eta garajea. **145.000 €** (negoziagarria).

IBAIZABAL Apartamentu ia berria. Ganbara handia velux-arekin eta garajea.**199.000€**

IURRETA Dena berria, 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela-jangela eta terraza.**120.000€**

//ETXEBIZITZAK SALGAI
MENDIZABAL (ALLUIZ).126m2. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, eskitokia, ganbara eta garaje itxia. **295.000 €.**

IURRETA 111m. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela handia. Terraza 12m2. Trastelekua eta garajea. **276.000 €**

SAN IGNACIO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela, terraza. Igerilekua auukeran. **195.000 €**

BERRIAK, ESTREINATZEKO 86m2.3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela, terraza eta ganbara. **152.000 €**

ASK. ETORBIDEA: DUPLEXA. 100m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta eskitokia. Egongela eta trastelekua. **220.000 €**

SAN IGNACIO 104m2. 3 logela, 2 bainugela, sukalde-jangela, egongela, ganbara eta garajea. **260.000€.**

BERRIZ Familia bakarreko baserria. 3 solairu. **195.000 €**

IPARRAGUIRRE 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, eguzkitsua. **230.000 €**

MATIENA LAUBIDETA. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, 2 terraza, ikuspegiak, eguzkitsua.

LANDAKO ETORBIDEA 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea.

Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **196.000€**

ANTSO EZTEGIZ 90m2. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **150.000€.** neg.

ANDRA MARI Erdigunean, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, galeria, trastelekua. **125.000 €**

J. ICIAR 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea, terraza, eguzkitsua, dena kanpora begira. **125.000€**

MATIENA 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza, igogailua, eguzkitsua. **130.000€**

ZALDIBAR Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **129.000€**

BERRIZ 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. **65.000€**

Zaldibar 2 eta 3 logela, eguzkitsua, dena kanpora begira, berriztatua. **99.000€**

F.J.Zumarraga 130m2. 3 logela.(Printzipala bikoitza.) 2 bainugela, sukalde-jangela, egongela, 2 terraza, ganbara. Garajea eta trastelekua aukeran.**285.000€**

ASK. ETORBIDEA Ia berria, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela eta ganbara. Garajea. Terraza 66m2.

MADALENA Duplexa egiteko aukera, azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela eta garajea. ORAIN **260.000€**

J.A. AGIRRE Azken solairua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskitokia, egongela terrazarekin, 2 ganbara eta garajea.

BERRIZ. Txalet adosatua. 4 logela. 4 bainugela. Egongela 2 terrazarekin, sukalde handia, garajea eta txokoa. **410.000 €**

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
ARTEKALE 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. **94.000 €** negoziagarri.

LOCAL INVERSION.50m2. Egokitua. **85.000€.**

DURANGO TABERNA martxan. 95 m2.**138.000**

ZALDIBAR Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.

F.J. ZUMARRAGA AUKERA. 114 m2. SALMENTA **150.000€**(negoziagarri)

IBAIZABAL 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500 €.**

ASK. ETORBIDEA Garaje itxia. **18.800 €**

www.inmoduranguesado.com



DURANGO

3 logela

2 komun

MARTXOAREN 8KO: 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, hall-a eta balkoi; dena hornituta,egoera onean. Etxebizitza osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua

260.000€



IURRETA

3 logela

2 komun

110 m²

IURRETA: Hall-a, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta 2 bainuegela, garajea eta trastelekua veluxarekin. Igogailua berria, dena kanpora begira. Ikuspegia

276.000€



DURANGO

3 logela

74 m²

SASIKOA: 2 logela (horma-armairu), egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoi. Berogailua eta ura gas naturalarekin. Ganbara (3,7m2). Garage itxia 28,17m2)

249.000€



DURANGO

3 logela

69 m²

JUAN ANTONIO ABASOLO: 69 m2. 3 logela (2 horma-armairuekin), egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoi. Igogailua.

160.000€



DURANGO

3 logela

74 m²

J. ANTONIO ABASOLO: 74m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoi. Garajea aukeran 18.000€

140.000€



DURANGO

3 logela

83 m²

SAN IGNACIO: 83 m2.3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita, egongela eta balkoi. Trastelekua (6m2) eta garage itxia elkarbanatua. Igerilekua aukeran.

258.000€ / NEG.

//DURANGO.
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. 134m2. **295.000 €** / E.E.Z =E

ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. **250.000 €** / E.E.Z =F

ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia. **270.000**/E.E.Z=F

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 180.000/E.E.Z=F

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 €** / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoi eta igogailua. LEHEN 210.000 € ORAIN **190.000€**/ E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi eta igogailua. **205.000 €** / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 €** / E.E.Z=F

JUAN DE OLAZARAN KALEA – Estreinatze baimenarekin, 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje eta trastelekua. **345.000 €** / E.E.Z =A. Bigarren garajea aukeran

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **175.000EURO**/E.E.Z=F

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN **255.000€**/ E.E.Z=E

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ ORAIN **260.000 €** / E.E.Z= E

MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€** E.E.Z= F

MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi, igogailua, garaje eta trastelekua. **288.000 €** / E.E.Z=E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi, igogailua, garaje eta trastelekua. **290.000 €** / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 275.000 €/ ORAIN 260.000 € / **E.E.Z=E**

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, garaje eta ganbara. **220.000 €** / E.E.Z=G

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **150.000 €** / E.E.Z Bidean

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z Bidean

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje eta trastelekua. **175.000 €** / E.E.Z=E

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 €** / E.E.Z= F

//BERRIZ
ANDIKONA AUZO Berreraikitze baimenarekin, **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoi. **120.000 €** / E.E.Z= F

ELIZONDO AUZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoi. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 €** / E.E.Z= G

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 199.000 €/ ORAIN **189.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

//IURRETA
ZUBIAURRE KALEA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **100.000**/E.E.Z=E

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOBaserria lurzorua, **350.000€**

//BERRIAK
DURANGO - KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **92.000 €** / E.E.Z Bidean

BERRIZ Olakueta Plaza 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 €** / E.E.Z= G

LURZORU ERAIKIGARRIA SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliari eraikitze baimenarekin, 600m2ko lur-sorua.**640.000€**



GAURSA

CAR WASH



PREMIUM GARBIKETA TUNELA
AUTOZERBITZU GARBIKETA-BOX ETA XURGAGAILUA



Arriandi Auzoa, 12 lurreta (Bizkaia) Renault eta Nissan Gaurisa instalazioetan

“Erreleboa hartzeko prest gaude, baina asko dugu ikasteko oraindik”

Amaiak, Garazik, Iratik eta Maitanek modu berezian biziko dituzte, aurten, lurretako sanmigelak. Antolakuntza lanetan murgildu dira lehenengoz, eta gogoz jardun dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Aitte San Migel jai batzordeko kide berriak dira Amaia, Garazi, Irati eta Maitane. Lanpetuta ibili dira irailean, baina pozik, eta herritarrak jai batzordean parte hartzera animatu gura dituzte. Beti dago-eta zer egin, zertan lagundu.

Errelebo berria zarete.

Maitane: Bai, baina hasi baino ez gara egin. Ez nekien horrenbeste lan egiten zenik jaiak antolatzen. Lan piloa egin dugu. Irailean egunero ibili gara jaiekin lotutako zerbaite egiten.

Amaia: Erreleboa hartzeko prest gaude, baina asko dugu ikasteko oraindik. Helduak ikusi ditugu horretan beti, geure burua gazte ikusten genuen, eta oraindik ere hainbat gauzetan ezjakinak garen arren, saiatzen gara laguntzen. Gure iritzia ematen dugu. Ekitaldi berriak sartzen ere saiatu gara.

Jaien antolakuntzan parte hartzen dute iurretarek? Jai batzordea indartzeko, parte hartzera deitu zuten apirilean.

Amaia: Herritar askok laguntzen dute jaiak antolatzen. Baina beste batzuek jakin ere ez dakite jaiak antolatzen lagundu dezaketela. Maitane eta biok ez ginen jai batzordearen lehenengo deialdira joan, baina, gero, parte hartzeko premia ikusi genuen. Gazte Asanbladan ere bagabiltza eta aukera ona da jai batzordean zein sanmigeletan gure kezka edo proposamenak aurkezteko.

Irati eta Garazi, familiatik datorkizue jaiak antolatzea. Nola heldu diozue lanari?

Irati: Errespetuagaz eta gogoagaz hartu dugu jaien antolakuntza. Aita ibilitakoa da jai batzordean, bai.

Garazi: Orain urte asko aitita ibili zen. Gero, ama ere bai, eta orain

neu hasi naiz. Gogoz hartu dut.

Leku askotan desagertu dira jai batzordeak. lurretan gertatuko da horrelakorik?

Maitane: Ez, horretarako gaude gu.

Irati: Ez. Gauzak ondo irteteko, lana egin behar da, antolatu.

Amaia: Dugun ilusioa ez dut uste desagertuko denik. Jai batzorde herrikoia izatea garrantzitsua da, herritarrek euren ideia eta ekarpenak azaltzeko aukera dute.

Zer dute berezia sanmigelek?

Garazi: Herriko jaiak beti dira bereziak. Aurten, gainera, egindako lanaren emaitza ikusiko dugu.

Irati: Plazara etorri eta Doniel Atxa ikustea gustatzen zait niri.

Maitane: Sentimentu piloa da. Aurten, hainbeste lan egin ostean, emaitza ikustea berezia izango da.

Amaia: Plaza herritarren topagune bihurtzen dela ikustea gustatzen zait, eta herri bazkarietan sortzen diren harremanak.

Nola disfrutatuko dituzue jaiak?

Amaia: Gogor lanean eta tentsio handiagaz. Herri bazkaria, Gazte Eguna eta Mozorro Eguna gozatuko ditut bereziki

Maitane: Gaugiroa ere aprobetxatuko dugu, apur bat.

Irati: Plazako giroa ere bai.

Amaia Elizaran Mendarte | 2000

Garazi Areitio Sopelana | 2004

Irati Otadui Maiztegi | 2004

Maitane Totorika Del Amo | 1999

Iurretako Aitte San Migel Jai Batzordeko kide berriak



Garazi: Musikaz, Mozorro Eguna... gozatuko dugu. Jaiak antolatzea eta ekitaldietan parte hartzea lagungarriak dira jaiez gozatzeko.

Zer eskatuko zenukete?

Amaia: Gure lana errespetatzea, ondo pasatzea eta norbere burua errespetatzea.

Garazi: Bai, eta erasorik ez egotea.

Maitane: Gozatzea, urtean behin dira eta.

Irati: Ondo pasatzea, eta istripurik eta erasorik ez egotea.

Amaia, Maitane eta Irati, Dantzari Dantza egingo duzue aurten. Zein sentazio duzue?

Amaia: Inpresio apur bat ematen du. Halako errespetu bat ere bai, jendearen erantzunagatik edo. Baina sanmigeletan plazara dantzara irteteak beti ematen du errespetua. Neskok Dantzari Dantza egiteagatik ez dugu uste ezer apurtzen ari garenik; dantzan ez egitea litzateke apurtzea.

Irati: Hala da. Oromiñon eta Bakixan egin izan dugu aurretik, baina jende gutxiago egoten da. Zirrara handia sortzen dit herriko plazan sartu eta jendez beteta ikusteak.

Lauhortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikaslea



Eskaparate hiria

"MTV Music Week Bizkaiarekin, Durangok, Bilbo, Barakaldo eta Getxorekin batera, mundu osoari erakutsiko dio lehenengo mailako ekitaldiak antolatzeke dugun kapazitatea, eta zer garen mundu osoari erakusteko aprobetxatuko dugu". (Aitziber Irigoras, PNV)

MTV: Gazte eredu matxista eta klasista sustatzen duen amerikar kolonialismo kulturala.

Lehenengo mailako ekitaldiak: 1. MTV Bizkaira ekartzeko PNVren diputazio eta udalak 3.000.000 ordaintzea. 2. La Vuelta Durangotik pasatzeko Durangoko PNVk 25.000 ordaintzea.

Zer garen: 1. Euskal nortasun eta kulturarentzat ahalik eta espazio txikiena ematen dutenak. 2. Hilabete eskas aurretik antolatuko diren jai herrikoiei oztopoak jartzen baino ez dizkienak (aurreko ekimenen finantzaketan zifrekin zerikusirik ez dutenak).

Mundu osoari erakusteko: 1. Nazio marka sortuz, norberaren interes ekonomiko batzuek lortzeko. Adibidez: udal taldean sexu abusu saiakeragatik salatutako bat dagoen arren, arduraren feministaz jokatzuz, emakumez osatutako ekimena lotzea edota herriaren erabakiaren gaineratik hiri antolaketa baldintzatuko duten bost dorreak eraikitzea (Durango operazioa delakoa).

Marka: kontsumitzaileak edo jasotzaileak duen pertzepzioa produktu baten inguruan.

Produktua: Kasu honetan, gure herria, Basque Country.

Basque Country: 1. Garai batean Euskal Herria ordezka zezakeela pentsatzen genuena, baina gero eta gehiago Erkidegoko gobernuari lotuta agertzen zaiguna. 2. Salerosketara bideratutako aisialdiaren eskaparate hiria.



XX. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Urriak 7 // Andaparape 11:00-14:00

Txahala burduntzi erara / Artisautza / Umeentzako tailerrak

